Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS, SOCIALES Y DE LA EDUCACIÓN**

***GIZA, GIZARTE ET HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA***

**Graduado o Graduada en Maestro en Educación Primaria**

***Lehen Hezkuntzako Irakasletzako Gradua***

**Trabajo Fin de Grado**

***Gradu Bukaerako Lana***

# IKTen kontsumoa haurtzaroan eta patologia mentalen eta fisikoen garapenean duten eragina


**Ikaslea: Telmo Arriazu Muñoz**

**Bideorako esteka:** https://youtu.be/B_tBEM0IfQs

Tutor/Tutorea: Fernando Trebol Unzue

Departamento/Saila: Osasun Zientziak


**Campo/Arloa:** **Psikologia**

**Hilabetea, urtea:** **Maiatza, 2022**

*Resumen:*

El presente trabajo de fin de grado identificará la influencia que tiene el uso de las TIC en la infancia y la relación que guardan con el desarrollo de diferentes patologías mentales y físicas. Para ello, en el marco teórico se analizarán los principales agentes de socialización que forman parte de la infancia: la familia y la escuela. De esta forma, se identificarán los factores de protección y riesgo que se manifiestan en los hábitos de consumo y el uso de las TIC, como parte de esos hábitos, para que la escuela pueda realizar una intervención eficaz. Para identificar esos factores se hará un análisis DAFO a través de un cuestionario enviado a maestros y maestras de Educación infantil y primaria, y así poder dar respuesta preventiva al uso indebido de las TIC. En definitiva, se hará un protocolo de intervención para fomentar el consumo didáctico en la escuela y lúdico en la familia, acorde a las necesidades psicológicas de los niños y niñas de Educación Primaria.

*Palabras clave:* Tecnologías de Información y Comunicación (TIC), socialización, escuela, consumo didáctico, patologías.

---

*Abstract:*

This thesis will identify the influence of the use of ICTs in childhood and their relationship with the development of different mental and physical pathologies. To this end, the theoretical framework will analyse the main agents of socialisation that form part of childhood: the family and the school. In this way, the protective and risk factors that are manifested in consumption habits and the use of ICT, as part of these habits, will be identified so that the school can carry out an effective intervention. In order to identify these factors, a SWOT analysis will be carried out by means of a questionnaire sent to infant and primary school teachers, in order to provide a preventive response to ICT misuse. In short, an intervention protocol will be drawn up to promote didactic consumption at school and playful consumption in the family, in accordance with the psychological needs of Primary School children.

*Keywords:* Information and Communication Technologies (ICT), socialisation, school, didactic consumption, pathologies.

---

*Laburpena:*

Gradu-amaierako lan honetan, haurtzaroan IKTak erabiltzeak duen eragina eta patologia mental eta fisiko desberdinen garapenarekin duten harremana identifikatuko dira. Horretarako, esparru teorikoan haurtzaroan parte-hartzen dituzten sozializazio-eragile nagusiak aztertuko dira: familia eta eskola. Modu honetan, kontsumo-ohituretan eta IKTen erabileran agertzen diren babes-

eta arrisku-faktoreak identifikatuko dira, eskolak esku-hartze eraginkorra egin dezan. Faktore horiek identifikatzeko AMIA azterketa bat egingo da Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleei bidalitako galdetegi baten bidez, IKTen erabilera desegokiari prebentziozko erantzuna eman ahal izateko. Azken batean, esku-hartze protokolo bat diseinatuko da, eskolan IKTen kontsumo didaktikoa eta familian kontsumo ludikoa sustatzeko, Lehen Hezkuntzako haurren behar psikologikoekin bat datorrena.
*Gako hitzak:* Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT), sozializazioa, eskola, kontsumo didaktikoa, patologiak.

---

*Eskerrak*

Lehenik, gradu bukaerako lan honen zuzendariari eskerrak eman nahi nioke, etengabeko interes eta ekarpenengatik, eta lan hau garatzen lagundu duten ideien trukearengatik. Bestetik, hilabete hauetan laguntza eman didaten senide eta lagun guztiei.

# AURKIBIDEA

ANTECEDENTES / AURREKARIAK 5
1.1. OBJETIVOS / HELBURUAK 6
1.1.1. Objetivos principales: 6
1.1.2. Objetivos concretos: 7
1.2 PREGUNTAS / GALDERAK 7

ATAL TEORIKOA 11
2.1. Gizarte kapitalista eta Hezkuntza Sistema 11
2.1.1. Gizarte kapitalistaren ezaugarri orokorrak 11
2.1.2. Hezkuntza Sistema XIX. mendetik gaur egun arte 11
2.2. Gizartea XXI. mendean. Kontsumo eta ezagutza gizartearen sorrera 12
2.2.1. Kontsumoa eta Mass-medien arteko erlazioa. Zer eragina dute Mass-Mediek haurtzaroan egiten den kontsumoan? 13
2.2.2. Mass-mediak eta publizitatea sozializazio prozesuan. 14
2.2.2.1. Gizartearen sozializazio prozesua. 15
2.2.2.2. Haurtzaroa eta sozializazio eragileak: Familia eta eskola. 15
2.2.2.3. Mass-medien eta publizitatearen eragina eskolan eta familian. 16
2.2.2.4. Haurtzaroa eta ikus-entzunezko baliabideak eta produktuak (IKT) 17
2.2.3. Familia, bizi-ohiturak eta kontsumoa. Familiaren funtzio soziala. 18
2.2.3.1. Eskola eta familiaren arteko erlazioa. Bi eragileen arteko kontsumoaren trataera bateratua eman daiteke? 19
2.2.3.2. Kontsumoa eta patologien arteko erlazioa. 20
2.3. Patologia eta psikopatologia kontzeptuak 20
2.3.1. Psikopatologia definizioa 21
2.3.2. Psikopatologiaren jatorri biologiko-genetiko vs soziala 21
2.3.2.1. Psikopatologien dimentsio biopsikosoziala 23
2.3.2.2. Babes eta arrisku faktoreak haurtzaroan 25
2.3.2.4. Eskolaren eragina osasunean 28
2.3.3. Kontsumo ohiturekin erlazionatutako psikopatologiak: AFH-N, obesitatea, antsietatea eta depresioa 29
2.4. Eskolan Informazio eta Komunikazio teknologiei (IKT) ematen zaien erabilera 33
2.4.1. IKT-en erabilera ludiko eta didaktikoaren ezberdintasuna eta arriskuak 33
2.4.2. IKTen presentzia gaur egungo Hezkuntza-Sisteman 34
2.4.3. IKTen kontsumoa: babes- edo arrisku-faktorea? 35
2.4.4. Kontsumo ohituren didaktika: Nola kudeatu IKT-en kontsumoa. 35

3. AMIA: IKTei eskola ezberdinetan ematen zaien erabilera. Ikus-entzunezko baliabideen kontsumo gisa 37
3.1. AMIA analisia: 37
3.2. Eskoletan erabiltzen diren IKT-ak 42
3.2. Zertarako erabiltzen dira IKT-ak 43
3.3. IKT-ak erabiltzeko irakasleek jasotako formakuntza 44

4. Protokolo baten proposamena 47
4.1. Datu bilketa eta aurre-ebaluazioa 48
4.1.1. Eskolan IKTei ematen zaien erabilera. Eskolaren kontsumo-ohiturak ezagutzen. 48
4.1.2. Familian IKTei ematen zaien erabilera. Familiaren kontsum-ohiturak ezagutzen 49
4.2. Datuen analisia: AMIA 50
4.3. Interbentzioa: IKT-en kontsumo-ohitura ludiko eta didaktikoen kudeaketa 51
4.3.1. Familien IKTen kontsumoaren kudeaketa 51
4.3.2. Zergatik Hezkuntza Sistemak software librea erabili behar du? 57
4.3.4. Protokoloaren euskarria: WEB (formatu digitala) 59
5. Proposamenak zein eragin pedagogiko, psikologiko eta sozialak du eskola eremuan: Praktikarekin duen lotura. 64
CONCLUSIONES / ONDORIOAK 64
BIBLIOGRAFIA 66
ERANSKINAK 73

# 1. ANTECEDENTES / AURREKARIAK

Desde que entré a la universidad me he interesado por la sociología, la antropología y la psicología. A través de estas tres ramas de la ciencia he querido obtener nuevos conocimientos sobre el estudio que se hace de la sociedad y de todos los procesos sociales que se manifiestan en ella. Por dar un ejemplo, en el primer curso del grado me interesó mucho el estudio del proceso de socialización que se inicia en la infancia. Identificar todos los factores de riesgo y de protección que intervienen en este proceso y se manifiestan en la escuela, la familia, los amigos, las redes sociales y, en general, en el contexto y entorno social de cada persona. Así llegué a la conclusión de que, en la medida en que cada persona crece en un contexto diferente y singular, vivirá su propio proceso de socialización. Es decir, que por un lado está el proceso de socialización que impone la sociedad y, por otro, el rol que cada persona desempeña en ese proceso, o la experiencia vital en el mismo. Esta experiencia, como vivencia personal de los individuos, irá constituyéndose en la identidad personal del individuo a lo largo de su vida. En este proceso, la persona se va transformando con el medio y el medio con la persona. Por tanto, la socialización es un proceso social, cultural, económico y psicológico imprescindible para la reproducción social, en el que cada persona pasa a ser un participante activo de la sociedad. Por todo ello, la socialización será en gran medida el objeto de investigación de este trabajo de fin de grado.

Este trabajo identificará la influencia que tiene el uso de las TIC en la infancia y la relación que guardan con el desarrollo de diferentes patologías mentales y físicas. Para ello, se analizarán los principales agentes de socialización que forman parte de la infancia: la familia y la escuela. De esta forma, se identificarán los factores de protección y riesgo que se manifiestan en los hábitos de consumo y el uso de las TIC, como parte de esos hábitos, para que la escuela pueda realizar una intervención eficaz. Así pues, para llevar a cabo este trabajo se utilizarán las áreas de sociología, antropología y psicología que más me interesan:

Sociología: para analizar los hábitos de consumo de la familia y la escuela, y el impacto de los mass-media y la publicidad, se trabajarán diferentes áreas sociológicas. En realidad, el mismo proceso de socialización es un fenómeno que se estudia en la sociología

Antropología: se ha analizado la definición de la sociedad capitalista, la posición histórica de la sociedad de consumo y conocimiento y la creación del Sistema Educativo desde un punto de vista antropológico.

Psicología: la psicología, como ciencia, ha sido la base de este trabajo de fin de grado. De hecho, la elaboración e intervención de las TIC en la escuela debe estar adaptada a las necesidades psicológicas de los niños y niñas.

Por todo ello, me ha resultado muy útil este trabajo de fin de grado, que para mí ha sido un proceso activo de enriquecimiento intelectual y personal.

## 1.1. OBJETIVOS / HELBURUAK

Como se ha mencionado anteriormente, analizar los efectos que tienen las mercancías audiovisuales, como parte de las Tecnologías de Información y Comunicación, y el consumo en el desarrollo de diferentes patologías físicas y mentales es el objetivo de este trabajo. En concreto, se pretende dilucidar cuál es el impacto que tiene el consumo de estas mercancías en el entorno familiar y escolar. Actualmente está más extendido el uso de redes sociales y plataformas digitales en la infancia. De hecho, los niños son capaces de dominar estas plataformas y desde muy temprana edad las consumen, acostumbrándose rápidamente a esos estímulos externos. Así, el presente trabajo busca demostrar cuál es el impacto que tienen esos estímulos externos sobre la mente y el cuerpo de los niños y niñas.

De esta forma, el presente trabajo fija tres objetivos principales y tres objetivos concretos sobre los cuales se llevará a cabo un proceso de investigación, el cual culminará con una propuesta teórico-práctica dirigida al personal docente de la escuela:

### 1.1.1. Objetivos principales:

- ➔ Investigar el impacto que tiene el consumo de mercancías audiovisuales en el desarrollo de patologías mentales y físicas.

- ➔ Identificar la correlación existente entre las costumbres de consumo en el entorno escolar y familiar en el desarrollo de patologías mentales y físicas.

- ➔ Identificar los factores de protección y riesgo presentes en el consumo familiar y escolar.

- ➔ Crear un protocolo de prevención para el personal docente de la escuela con el fin de identificar factores de protección y riesgo en el consumo de las TIC y fomentar el uso educador, didáctico y saludable de las mismas.

### 1.1.2. Objetivos concretos:

➔ Ayudar a identificar el origen multicausal de las patologías mentales y físicas.

➔ Investigar el impacto de la publicidad, los mass-media y demás medios audiovisuales en el entorno escolar y familiar.

➔ Concienciar sobre la necesidad de dar una respuesta preventiva y educar en el consumo didáctico y lúdico de las TIC, tanto en el ámbito escolar, como en el familiar.

## 1.2 PREGUNTAS / GALDERAK

Una vez se han fijado los objetivos, es necesario plantear una serie de preguntas que sirvan como precedente y punto de partida para el proceso de investigación. Así, este trabajo busca investigar el impacto que tienen las mercancías audiovisuales en el desarrollo de diferentes patologías, además de demostrar la correlación existente entre las costumbres de consumo en la infancia y las patologías. Con el fin de llevar este trabajo de fin de grado se plantean las siguientes preguntas:

- ¿Qué factores intervienen en la manifestación del estrés, ansiedad y depresión en la infancia?

Responder a esta pregunta no es tarea fácil. De hecho, se podría decir que cada caso de estrés, ansiedad y depresión que se diagnostican en la infancia es único y singular, ya que cada niño y niña es diferente entre sí. Por tanto, el tratamiento que ha de darse en estos casos debe ser personal e individualizado. Sin embargo, si tenemos en cuenta cuales son los patrones que podemos encontrar al investigar estos casos, nos daríamos cuenta de que existen unos factores que son iguales en la mayoría de los casos; es decir, existen ciertos contextos sociales, y concretamente, ciertos ambientes y costumbres que favorecen la aparición de éstas patologías. Entre ellos, por ejemplo, la situación laboral de la familia, los recursos de los que dispone, la estabilidad emocional y, a grandes rasgos, los hábitos de consumo que tiene la familia. Éstos últimos no surgen de la nada, sino que están directamente determinados por la situación social, económica y cultural de la familia. Es decir, en tanto más desfavorecida sea la familia económica y culturalmente, más posibilidades habrá de desarrollar patologías físicas o mentales. En este trabajo de fin de grado se tratará de identificar la

conexión existente entre los hábitos de consumo en general, y los hábitos de consumo de mercancías audiovisuales en particular, con el desarrollo de patologías mentales y físicas.

- ¿Qué factores intervienen en la manifestación del sobrepeso y obesidad?

En este caso, al igual que se ha expuesto en la pregunta anterior, son variados los factores que intervienen en el desarrollo de patologías. Sin embargo, los hábitos de consumo alimenticios y el sedentarismo son factores a tener en cuenta a la hora de hablar de sobrepeso y obesidad. Los hábitos alimenticios están estrechamente ligados con la situación económica familiar, dándose una mejor alimentación cuando se dispone de más recursos y de más tiempo. Es así que las familias que dispongan de estabilidad laboral podrán satisfacer mejor las necesidades alimenticias de los más pequeños. Lo mismo ocurre con los hábitos deportivos. Aquellas familias que dispongan de más tiempo y recursos podrán ofrecer actividades deportivas a sus hijos e hijas, evitando así hábitos sedentarios. Hay que remarcar, además, que los hábitos sedentarios van acompañados del consumo de medios audiovisuales, como pueden ser la televisión, teléfono, redes sociales y plataformas de streaming. Identificar el impacto que tiene ese consumo de mercancías es un objetivo de este trabajo de fin de grado.

- ¿De qué depende la aparición del TDAH?

Es difícil determinar los factores que intervienen en la aparición del Trastorno por déficit de atención con hiperactividad. Sin embargo, en el presente trabajo se tratará de investigar para identificar cuáles son los factores ambientales que refuerzan la aparición de esta patología y el papel que juega el consumo de mercancías audiovisuales. Se debe dejar claro que el consumo de mercancías audiovisuales no es una situación que se dé de manera aislada, sino que va acompañado o forma parte de los hábitos de consumo de una familia. Como se ha mencionado anteriormente, la estabilidad laboral de la familia, así como su condición social y cultural son factores determinantes a la hora de tener unos hábitos de consumo u otros. Así pues, este trabajo de fin de grado tratará de identificarla conexión entre los factores ambientales y el desarrollo del TDAH.

---

- ¿Qué relación existe entre el consumo y los mass-media?

Determinar los factores ambientales que intervienen en el desarrollo de patologías mentales y físicas tampoco es tarea fácil. Sin embargo, el presente trabajo pondrá sobre la mesa una serie de situaciones y contextos sociales que favorecen la aparición de tales patologías. Entre estos factores encontramos el papel de la familia y los hábitos de consumo que se transmiten en ella. Estos hábitos de consumo no son iguales para todas las personas, sino que en cada contexto familiar se le dará un tratamiento diferente según sus recursos y situación social y cultural. Actualmente los mass-media o los medios de comunicación de masas juegan un papel importante a la hora de favorecer el consumo en la población. De hecho, no se puede entender el consumo sin los mass-media. La televisión, las empresas de streaming como netflix o Prime Video, Youtube o Twitch son plataformas que forman parte de los mass-media y que las personas,desde muy temprana edad, empiezan a consumir. Por tanto, el consumo del siglo XXI es parte inseparable de los mass-media, las dos caras de la misma moneda. Así pues, el presente trabajo identificará esa conexión.

- ¿Qué papel juega la publicidad en el consumo?

El consumo no puede entenderse sin la publicidad; de hecho, es a través de la publicidad como se insta a consumir cualquier mercancía, el medio por el cual se quiere crear una necesidad en el consumidor. Por tanto, publicidad y consumo son dos fases(elementos) de un mismo proceso: publicidad para crear una necesidad y consumo para satisfacerla. Y, volviendo a los mass-media, es a través de éstos como publicitan un sin fín de mercancías, hábitos-costumbres, servicios y productos que llegan, de una manera u otra, a todas las personas. Así, estando los niños y niñas expuestos desde muy temprana edad a los mass-media, la publicidad, y por extensión, el consumo, son una parte inseparable del proceso de socialización de los niños y niñas.

- ¿Qué mercancías audiovisuales se consumen en la infancia?

Son muchas y variadas las mercancías audiovisuales que se consumen en la infancia. Desde videojuegos en móviles, tablets y consolas, hasta el consumo de plataformas digitales en internet como YouTube, Twitch o Netflix. Por tanto, el presente trabajo buscará demostrar cuáles son los efectos y el impacto que tiene el consumo sin límites en la infancia. En concreto, el impacto que tiene la exposición a estos estímulos externos.

- ¿Qué papel juega la familia en la transmisión de los hábitos de consumo?

Siendo la familia la institución social más importante en la infancia, durante los primeros años del proceso de socialización la transmisión de valores, normas, hábitos y costumbres se dan dentro de la misma. Por tanto, los hábitos de consumo se transmitirán primordialmente en la familia. Esos hábitos de consumo, además, no serán iguales en todas las familias, sino que dependerá de los recursos y contexto social, educativo y cultural de las mismas. Así pues, este trabajo de fin de grado busca investigar qué hábitos de consumo favorecen el desarrollo de patologías mentales y físicas en la infancia.

---

- ¿Qué tratamiento le da la escuela, y demás instituciones educativas, al consumo?

Para responder a esta pregunta se usará la herramienta de estudio de la situación DAFO en la escuela, la cual analiza las fortalezas, oportunidades, debilidades y amenazas de la institución. De esta manera se conocerá cuál puede ser la situación real en que se encuentra la escuela a la hora de tratar el consumo en la infancia. Así mismo, se procederá a hacer el mismo análisis en el entorno familiar con sendos cuestionarios.

- ¿Cómo se puede fomentar el consumo saludable en las escuelas y, por extensión, en la familia?

Educar sobre los hábitos de consumo saludables no es únicamente un quehacer de la familia, sino que la escuela puede hacer un aporte imprescindible a la hora de favorecer unos hábitos que sean beneficiosos para el desarrollo cognitivo-social de los niños y niñas. Para eso, será necesario analizar qué tratamiento se le da al consumo en la escuela y, a partir de ahí, crear una propuesta de intervención pedagógica dirigida al personal docente y las familias, con el fin de fomentar el consumo saludable entre el alumnado y evitar así el desarrollo de patologías mentales y físicas que puedan estar relacionados al consumo de mercancías audiovisuales.

# 2. ATAL TEORIKOA

Hurrengo atal honetan gradu bukaerako lan honetan planteatu diren galderak erantzuteko eta zehaztu diren helburuak betetzeko beharrezkoa den oinarri teorikoa azalduko da.

## 2.1. **Gizarte** kapitalista eta Hezkuntza Sistema

Informazio- eta komunikazio-teknologien kontsumoak patologia mentalen eta fisikoen garapenean duen eragina aztertzeko, horien sorrera, hedapena eta gizartean duten eragina identifikatu behar da. Hortaz, familia eta eskola testuinguruetan IKTei ematen zaien erabilera identifikatzeko, gaur egungo gizarte kapitalistaren, kontsumoaren eta Hezkuntza Sistema modernoaren aurkezpenak egingo dira.

### 2.1.1. Gizarte kapitalistaren ezaugarri orokorrak

Euskaltzaindiaren (2022) arabera kapitalismoa " Ekoizpen, banatze eta truke-bideen jabetza pribatuan oinarritzen den ekonomia- eta gizarte sistema da". RAEk (2022), bestetik, hau dio: "Sistema económico basado en la propiedad privada de los medios de producción y en la libertad de mercado." Bi definizioetan, alegia, jabetza pribatua kontzeptuaren erabilera esanguratsua da. Hortaz, produkzio-bideen[1] jabetza pribatua izanik, merkatua sortzen da produkzio-bide horien bidez egiten diren merkantzien banatzea eta trukea bermatzeko. Hori guztiagatik, gizarte kapitalista, guztiaren gainetik, une historiko bat da.

### 2.1.2. Hezkuntza Sistema XIX. mendetik gaur egun arte

Irakasletza gradu bukaerako lan honek IKT-ek, ikus-entzunezko baliabideak barne, hautzaroan duten eragina eta patalogia ezberdinen garapenarekin duten erlazioa identifikatzea xedea du. Hortaz, eskolak egin dezakeen esku-hartzea zehaztea helburu bat izanik, eskolaren eta Hezkuntza Sistemaren aurkezpen bat egitea beharrezkoa da. Hezkuntza sistemaren, Haur eta Lehen hezkuntza Etapak, gaur egun ezagutzen diren bezala, XIX. eta XX. mendeko iraultza ekonomiko-sozialetan jatorria ez ezik, modernizazio prozesuaren ondorioa izan da. Hortaz, aurretik hezkuntzara eta heziketara bideratuta zeuden erakundeak aurki daitezke ere. Familia, industriaurreko gizartean, oinarrizko unitate ekonomikoa eta eragile sozializatzaile bakarra zen. Beraz, heziketa-eginbeharrak erakunde horretakoak ziren, balioak, tradizioak eta arauak inposatuz eta transmitituz (Castro, 2009). Jakintzen edo gaitasun teknikoen transmizioa, halaber, erakunde horren baitan egiten zen ere. Beste aldetik,

[1] Ekoizpeneko bitarteko edo baliabide ekonomiko bat da, ekoizleei lanen bat egiteko eta merkantziak sortzeko aukera ematen diena. Baliabide naturalak, garraioak, energia edo fabrikak izan daitezke, beste gauzen artean.

familiaz gain, antzinatik existitu dira beste hezkuntza-instituzioak, elite sozialetara bideratuta zegoena (Plutarco, 1974). Erdi aroan, adibidez, hizkuntza-instituzioak elizara lotuta zeuden. Edo elizan zuten jatorria. Izan ere, unibertsitateak goi-erdi aroan dute jatorria, hasiera batean elizaren babasarekin eta gero erregeen bermearekin. Gremio bezala funtzionatu zuten eta teologia edo ezagutzaren edozein arlo ikasten zuten ikasleek, lanbide bat ikasten den bezala (Salas, 2019). Hala ere, Hezkuntza Sistema, heziketa instituzioen sistematizazio gisa, antzinatik estatuen edo administrazio publikoen eskutik eman ohi da. Izan ere, Antzinako Grezian hezkuntzak pribatua izateari uzten dio eta araudi ofizialaren xede bihurtuko da (Lavado, 2002). Horrela izanik, historian zehar Hezkuntzaren izaera pribatua eta publikoa aldaketa sokonak jasan arren, XIX. mendeko iraultza ekonomiko-sozialak eta Estatu modernoen hedapenak Hezkuntzaren izaera publikoa aldarrikatuko dute. Izan ere, XIX. mendeko hezkuntza-berrikuntza handienetako bat hezkuntzaren mailaketa arautzea izan zen, haur hezkuntzatik eta unibertsitateraino. Hortaz, industrializazioak, gizarte osoa eraldatu zuenean, gizartearen beharrak ere eraldatu zituen. Gizarte moderno eta industrial berriak heziketa teknikoa behar zuen maila guztietan, haurtzarotik eta helduarora arte. Beraz, estatuek hezkuntza arautzeko konpromisoa hartu zuten (Salas, 2019).

Espainiar estatuan indarrean dagoen 1978. urteko konstituzioak Hezkuntza arautu eta zera aldarrikatzen du: *oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da. Botere publiko guztiek hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatzen dute, irakaskuntzaren programazio orokor baten bidez, ikastetxeak sortuz eta hezkuntzan parte-hartzen duten sektore guztiak inplikatuz* ***(art. 27.4 eta art.27.5 CE)****.*

## 2.2. Gizartea XXI. mendean. Kontsumo eta ezagutza gizartearen sorrera

Aurreko puntuetan egin den gizarte kapitalistaren definizioa baliagarria da gaur egun gizartea definitzeko. Hala ere, modernizazio prozesu baten ondorioz, IKTen sorrera eta hedapenaren ondorioz eta, oro har, merkatu globalizatuaren ondorioz, itxura berria hartu du. Izan ere, iraultza teknologikoak, informazio eta komunikazio teknologiak barne, gizartearen oinarria aldatzen ari da (Castells, 2004). Hortaz, gradu bukaerako lan honen helburuak betearren, IKTen eta kontsumoaren kontzeptuak aztertuko dira. Izan ere, IKTen hedapena ezagutza-gizartearen kontzeptuari lotuta dago. Kontsumo gizartea, berriz, kontsumo-ohitura berriekin. Kontuan izatekoa da, alabaina, bi kontzeptu horiek bateragarriak direla.

IKTen hedapena aldaketa sakonak ekarri ditu kontsumo-ohituretan. Izan ere, iraultza teknologiko deritzon prozesua bizi du gizarteak, non Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak giza jarduera osoak eragin ditu (Castell, 2000). Hortaz, kontsumo-ohituretan eragin du ere, gaur egungo kontsumoa IKTen baliabideen eta produktuen bitartez eginez. Hori guztiagatik, familiak IKTei

ematen dieten erabilera aztertu eta bertan egiten de kontsumoaren eta patologia ezberdinen agerpenaren arteko erlazioa identifikatuko da.

### 2.2.1. Kontsumoa eta **Mass-medie**n arteko erlazioa. Zer eragina dute Mass-Mediek haurtzaroan egiten den kontsumoan?

Gradu bukaerako lan honek ezartzen dituen helburuak lor daitezen, eta kontsumoaren eta mass-medien erlazioa identifikatzeko, bi kontzeptu horien definizioa egitea beharrezkoa da. Kontsumoa ez da betidanik existitu. Izan ere, kontsumoaren sorrera eta hedapena gizarte modernoarekin estuki lotuta dago. Zehazki, ondasun-ekoizpenerekin (Carrasco, 2007). Hortaz, Kontsumo-gizartea eta kontsumoaren kultura zibilizazio-eredua gisa, bigarren industria-iraultzak hedatutako masa-ekoizpenetik abiatzen da (Carosio, 2008). Enpresak eta, oro har, ondasunen produktoreak ez dute jendearen edo gizartearen beharrak soilik asetuko. Alba Carosioren (2008) hitzetan, enpresek bezeroen beharrak ezagutzea eta horiek asetuko dituzten produktuak proposatu behar dituzte. Eta, beste aldetik, premia eta behar berriak sortzea merkatua zabal dadila. Hau da, kontsumo-gizarteak bezeroaren subjektua sortzen du eta ondasunen-ekoizpena beharrak soilik asetzera bideratuta egon ez ezik, bezeroen beharrak sortzea bideratuta dago. Beraz, kontsumoa ez da izango jarduera ekonomiko utsa, gizartea egituratzeko forma bat baizik. Honela, bizirauteko beharrezkoak ez diren ondasunen edo merkantzien kontsumoa gizartearen jarduera nagusia bihurtu da, gizartea kontsumista izatera pasa (Rodríguez, 2012). Hori horrela, hurrengo galdera plantea daiteke: nola lortuko da beharrezkoak ez diren ondasunak eta merkantziak kontsumitzea? Galdera horren erantzuna mass-mediekin erlazionatuta dago.

Mass-mediak, komunikabide masiboak edo masa-komunikabideak zentzu konbentzionalean irrati, telebista, pelikulak eta musika sareak alde batetik, eta egunkari, aldizkari eta herri-literaturako hedabide inprimatuak bestetik izan ohi dira. Ekonomikoki eta politikoki bultzatuak daude, zientzia eta teknologiaren garapenetara loturik, eta giza-bizitzako domeinu gehienak bezala, hizkuntzaren erabilerarekin zabalduak dira (Spitulnik, 1993). Hala ere, XXI. mendeko komunikabide masiboak horietan oinarritu eta aurrerapauso bat eman dute, bereziki Interneten sorrerarekin. Horrela izanik, komunikabide forma berriak zabaldu dira, hala nola, sare sozialak, wikiak eta blog-ak[2] eta informazioa partekatzeko sare ezberdinak (Curtis, 2012). Sare horien artean, alegia, YouTube, Twitch, Netflix edo beste hainbat ikus-entzunezko baliabideak aurkitzen dira. Beste aldetik, telefono inteligenteen

[2] Wikia webguneetan erabiltzen den lan-sistema informatikoa da, erabiltzaileei beren edukia azkar eta erraz aldatzeko edo sortzeko aukera ematen diena. Bestetik, blog-a web-orri mota bat da, gehienetan pertsonala, egitura kronologikoa duena, aldizka eguneratzen dena eta gai jakin bat jorratzera bideratzen dena.

sorrerak interneterako sarbidea erraztu dute. Horiek horrela, komunikabide masiboen ezaugarririk esanguratsuena, alegia, biztanleriaren gehiengora iristeko eta, momentu oro, informazioa bidaltzeko eta jasotzeko gaitasuna izatea. Hortaz, komunikabide masibo horien bitartez kontsumo jokabideak zabaltzen dira (Carosio, 2008). Beraz, hori da kontsumoaren eta mass-medien arteko erlazioa, hots, kontsumo ohiturak zein jokabideak, baita produktu eta merkantzien erabilera ere, mass-medien bitartez zabaltzen direla. Mass-mediek eragin zuzena dute gizartean. Izan ere, sare sozialek munduaren eta errealitatearen irudi koherente bat eraikitzen dute. Ikusleek, ordea, errealitatearen bertsio hau barneratu dezakete, arau, balio eta itxaropen zehatzak sustatuz. Bestalde, elkarrekintza jarraitua dago norberaren eta komunikabideen artean, eta horrek norbanakoaren portaera propioa eta norbanakoak duen autokontzeptua eratzera eramaten du (McQuail, 1977). Horregatik guztiagatik, mass-mediek haurtzaroan bizitzen den sozializazio prozesuan esku-hartzen duten, haurren garapen ebolutiboa baldintzatu eta ikus-entzunezko baliabideekin ezartzen den harremanaren arabera, patologia mentalak eta fisikoak garatzeko aukera handiagoa egon liteke.

### 2.2.2. Mass-mediak eta publizitatea sozializazio prozesuan.

Jadanik identifikatu da mass-medien eta kontsumoaren arteko erlazioa. Izan ere, kontsumo ereduak mass-medien bitartez zabaltzen dira. Hortaz, ikus-entzunezko baliabideen kontsumoa zabaltzeko eta baliabide horietan haurtzaroan erabilitzen hasten diren produktuak (mugikorrak, tabletak eta ordenagailuak) sustatzeko, publizitatez hornitzen dira. Izan ere, haurrak publiko berezi eta erraz eragiteko moduko gisa identifikatu dira (Pecora, 1995). Beraz, haurtzaroa eragiteko subjektu aproposa izanik, mass-medien bitartez zabaltzen den publizitatea modu zuzenean eragingo du sozializazio prozesuan. Beste hitzetan, mass-mediak, publizitatea eta ikus-entzunezko baliabideak zein produktuak haurtzaroaren eta sozializazio prozesuaren parte dira. Izan ere, haurtzaroan publizitateak eta komertzialek eragin handia dute haurren kontsumismoa sustatzen eta gurasoengan marka jakin batzuk erosteko presioa sartzen (Rojas, 2008).

Beste aldetik, ikus-entzunezko baliabide horiek haurtzaroan hartuko duten pisua zehaztea ez da batere erraza. Izan ere, familia bakoitzak dituen ohiturak, baliabideak, jokabideak eta arauak definituko dituzte haurren eta ikus-entzunezko baliabideen arteko erlazioa. Horren adibideak, alegia, telefono inteligenteen eta Internetaren erabilera egokia, telebistara eta streming plataformei bideratutako denbora eta, horiekin lotuta, sedentarismoa eta elikadura, izango dira familia testuinguruan egon daitezken babes eta arrisko faktoreak.

### 2.2.2.1. Gizartearen sozializazio prozesua.

Jaiotzen garenetik gizartearen parte izateko eta gure ingurumenarekin erlazionatzeko oinarriak ezartzen dira. Hau da, gizartean integratzeko prozesua. Prozesu horri sozializazioa deritzo. Santiago Yuberoren (2005) hitzetan, gizakia, jaiotzen denetik, izaki soziala eta mundu sozial baten parte izango den subjektua da. Horretarako, alegia, besteen laguntza behar du, besteekiko interakzioaren bidez prozesu hori aurrera eramanez. Hori horrela, familia izango da haurtzaroan parte-hartzen duen eragile sozializatzaile nagusia, haurraren behar kognitiboak eta sozialak asetuz. Behar sozial horien artean gizarteak egokitzat jotzen dituen gizarte jokabideak aurkitzen dira, baita arauak eta balioak ere (Yubero, 2005). Berez, sozializazio prozesuaren bi momentu ezberdin aurki daitezke: lehen eta bigarren mailako sozializazioak. Lehenengoak haurrak familia testuinguruan bizitzen duena da, norbanakoaren kontzeptua eraikitzeko eta gizartean txertatzeko. Bigarrengoak familiatik kanpo bizitzen diren esperientziak sozialak dira, gizarteko beste eragileekin erlazionatuz (Berger eta Luckmann, 2003). Gradu bukaerako lan honek ezartzen dituen helburuak lortzeko, lehen mailako sozializazioa kontuan hartuko da. Familia alde batetik, eta eskola bestetik, izango dira haurtzaroan parte-hartuko duten eragile nagusiak eta testuinguru horietan ikus-entzumenezko baliabideen kontsumoari egiten zaion trataera baldintza dezake patologia ezberdinen garapena. Hortaz, familia eta eskola testuinguruan patologiak gara dezakeen IKT-en erabilerak, ikus-entzunezko baliabideak eta produktuak barne, eta bertan aurkitzen diren babes eta arrisku faktoreak identifikatzea da lan honen xedea.

### 2.2.2.2. Haurtzaroa eta sozializazio eragileak: Familia eta eskola.

Lehen mailako sozializazioan murgilduz, familiaren eta eskolaren eragina haurtzaroan eta egin daitekeen esku-hartzea identifikatu beharra dago. Lehenengoak, alegia, haurren oinarrizko heziketa eta behar psikologiko-afektiboak asetzen ditu. Izan ere, familiak janztera, garbitzera, adinekoei obeditzera, txikienak babestera, elikagaiak partekatzera, ahozko hizkuntzan hastera, joko kolektiboetan parte hartzera, araudiak errespetatzera, beste gauzen artean, irakatsi behar du (Castro, 2009). Gaitasun horien bereganatzeak haurraren sozializazioa eskolan errazten du. Hori horrela, Castrok (2009) argitzen du haurrak, jaiotzen direnetik, familia testuingurutik eragin pertsonala, kulturala eta soziala jasotzen du, haurren identitate pertsonala, nortasuna, indibidualitatea eta, azken batean, garapen soziala gauzatuko duena. Familiak, ordea, ez du gaitasunik zentzu abstraktuan transmititzen, ez baitira pertsona guztientzan gaitasun berdinak. Sozialki onartuak eta beharrezkoak diren gaitasunak egon arren, familia batek sortzen duen hezkuntza-ingurugiroa, transmititutako gaitasunak eta asetuko dituen beharrak gizarte-baldintza batengatik zuzenean bitartekatua dago: klase soziala eta, funtsean, familiaren baliabide materialak. Hortaz, hezkuntzaren soziologian ezaguna

da jatorri sozialaren eta errendimendu akademikoaren arteko erlazioa. Aldizka, gaiari heltzen dioten ikerketek zera diote: langile klaseko ikasleek erdi eta goi-mailako ikasleak baino zailtasun gehiago azalaratzen dituzte (Carmona, 2014). Beraz, ez dira soilik gaitasunak transmititzen, baita zailtasunak ere. Hortaz, familiaren bizimoduan eta ingurugiroan arrisku-faktoreak egonez gero, haurren garapenean zuzenean eragingo du. Horregatik, ordea, eskolaren esku-hartzea ezinbestekotzak jotzen du. Eskola eta familia haurtzaroko eragile nagusiak izanik, bi eragileen arteko koordinazioa, kooperazioa eta esku-hartzea haurren garapen ebolutiboa faboretzen du. Izan ere, familiaren eta eskolaren arteko harreman egonkor eta positiboek haurren autoestimua, eskola-errendimendua, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak eta gurasoek eskolarekiko dituzten jarrerak hezkuntza eraginkorragoa eta kalitate handiagoa bermatzen dute (Castro, 2009). Dena delakoa, familia eta eskola babes eta arrisku faktoreak partekatu ditzakete eta, ondorioz, familiaren kontsumo ohiturak haurraren garapenean eragin negatiboa izanez gero, eskolak haurraren behar espezifikoak identifikatu eta esku-hartze egonkorra gara dezake. Gradu bukaerako lan honek, alegia, ikus-entzunezko baliabideen kontsumoa eragin negatiboa izan dezakeela identifikatu eta eskolak izan behar duen jarreraren inguruko proposamena egingo du.

#### 2.2.2.3. Mass-medien eta publizitatearen eragina eskolan eta familian.

Aurreko puntuan azaldu den bezala, eskola eta familia haurtzaroaren sozioalizazio eragile nagusiak dira. Hortaz, ezin dira modu independientean aztertu behar. Hau da, bi eragile ezberdinak izan arren, modu bateratuan jarduten dute haurren eta ikasleen sozializazio prozesuan. Beraz, mass-mediak eta publizitatea ez dute soilik familiaren testuinguruetan eragingo, baita eskoletan ere. Izan ere, eskolan biltzen dira komunitate bateko eta jatorri ezberdineko haurrak, bakoitzak familia testuinguru propia izanik. Hala ere, eskolan elkartu eta esperientzia partekatuak biziko dituzte. Eskola testuinguruan mass-mediak eta publizitatea ikasleen jokabidean eta haien artean partekatzen duten esperientzietan aurkitzen da. Baita irakasleen jokabidean eta esperientzian ere. Hezkuntza-sistema curriculum pedagogiko batean oinarritzen den heinean, bertan aurkitzen diren edukiak eta eskola diseinatzen dituzten praktika didaktikoetan zuzenean eragin ez arren, mass-mediak eta publizitateak haurren eta irakasleen bidez bereganatuko du eskola. Hau da, eskola erakunde autonomoa[3] izan arren, gizarteko beste testuinguruetan eragiten duten indar sozial berberak eskolan eragingo dute. Kasu honetan, alegia, mass-medien eta publizitatearen bidez hedatzen diren kontsumo ohiturak, indar sozial gisa, eskolan eragingo dute. Izan ere, eskola ez da hezkuntza-testuinguru bakarra, eta irakasleak ez dira eragile bakarrak; familiek eta komunikabideek eginkizun hezitzaile garrantzitsuak

[3] Instrukzio-mota jakin batzuk transmititzen duen erakundea da eskola (RAE, 2022). Definizio hura sinplea den arren, ez baitu eskola sozializazio eragile gisa onartzen, baliagarria da eskola hezkuntza-erakunde autonomo bezala irudikatzeko.

betetzen dituzte. Sozializatzeko modu berrien eta eragile horien ikasleen hezkuntzaren eraketan duten boterearen aurrean, hezkuntza bera birformulatu behar da (Bolívar, 2006). Honek suposatzen du mass-mediak sozializazio prozesuan parte hartzen duen indar sozial eta, hein handi batean, eginkizun hezitzailea izan dezakeela. Beraz, mass-medietan aurkitzen den publizitatea eragin zuzena izango du haurren garapenean, bai familian, bai eskolan; eta bereziki bereganatzen diren ohituretan, jokabideetan eta nahietan. Izan ere, helbuak ez bezala, haurrek ez dute informazioa modu kritikoan asimilatzen. Hau da, mass-medietan hedatzen den publizitatea modu akritikoan barneratzen da haurtzaroan. Izan ere, autoerregulaziorako duten gaitasun mugatuagatik eta presioarekiko sentsibilitateagatik, haurrak erabiltzen dituzten sare sozialetan, mass-media gisa, arriskuan daude (O'Keeffe eta Clarke-Pearson, 2011). Hortaz, eduki horiekin ezartzen duten erlazioa neurtuta eta mugatua izan behar da.

#### 2.2.2.4. Haurtzaroa eta ikus-entzunezko baliabideak eta produktuak (IKT)

IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) informazioa kudeatzeko eta eraldatzeko behar diren teknologiak dira. Hortaz, informazio hori sortzeko, aldatzeko, biltegiratzeko, babesteko eta berreskuratzeko ordenagailuak eta programak bereziak erabiltzen ohi dira. IKTek, Ezagutza eta Informazioa gizartearen funtsezko elementu gisa, informazioa, ideiak eta ezagutza eskuratzeko eta horretan parte-hartzeko gaitasun unibertsala eskatzen du (Romani, 2009). Horien artean, alegia, ikus-entzunezko baliabideak eta produktuak kokatzen dira.

IKT-en presentzia, hedapena, orokortua da gizarte modernoan. Haurren kasuan, alegia, sozializazio prozesuaren lehenengo etapetan gero eta erabiliagoak dira ikus-entzunezko baliabideak. Hortaz, familia eta eskola testuinguruetan gehien erabiltzen diren baliabideak eta produktuak[4] aipatuko dira:

- ➔ Telebista: Familia arloan gehien erabiltzen den IKTa. Bertan kontsumitzen diren edukien arabera, ludikoa edo didaktikoa izan daiteke.
- ➔ Ordenagailuak: Lan egiteko edo aisialdirako erabile daiteeken gailua. Internetetik nabigatzeko erabiltzen da ere.
- ➔ Bideokontsola: Orokorrean erabilera ludikora bideratzen den gailua da. Hala ere, bideojokoaren arabera didaktikoa izan daiteke.
- ➔ Tabletak: Ordenagailuak bezala, lan egiteko edo aisialdirako erabiltzen dira. Gero eta ohikoagoak dira Hezkuntza arloan.

[4] Produktu hitza IKT-ak erabiltzeko eta bertako edukiak erreproduzitzeko erabiltzen diren gailu edo sistemak.

- ➔ Mugikorrak edo segapotoak: Lehen Hezkuntzan oso ohikoa izan ez arren, haurrak familia arloan erabil dezaketen gailua da. Hortaz, bertan kontsumitzen diren edukien arabera ludikoa eta/edo didaktikoa izan daiteke.

Horiek dira IKT-en artean produktu erabilienak, non ikus-entzunezko baliabideak kontsumitzen diren: Interneta, Netflix, HBO eta bestelako streaming plataformak, You Tube…beste askoren artean. Izan ere, gradu bukaerako lan honek eginiko AMIA azterketa, horien erabilera eskoletan familia arloan aztertu eta, hortik abiatuta, Prebentzio protokolo baten proposamena egiten du.

### 2.2.3. Familia, bizi-ohiturak eta kontsumoa. Familiaren funtzio soziala.

Familiaren eta kontsumoaren arteko erlazioa identifikatzeko, familiaren definizio bat egitea beharrezkoa da. Dena den, definizio zehatz bat egitea konplexua da, ez baitago gizarte indibiduo guztiei orokortu daitekeen familia eredu bakarra. Berez, Espainan eta mundu mailan familia egituren eta harremanen eraldaketa sakona gertatzen ari da (Rodrigez eta Torrente, 2003). Hortaz, errealitateak familia nuklear tradizionaletik ihes egiten duten familia erakundeen aniztasuna erakusten du. Hau da, ez da zertan ahaidetasun-loturak existutu behar. Hala ere, Horwitz, Florenzano eta Ringeling-en hitzetan (1985) familia nuklearraren forma tradizionala, ugaltze-unitate[5] gisa, ohikoena izaten jarraitzen du. Definizio baliagarri bat ematearren, Palacios-ek eta Rodrigo-k (1998) honela definitzen dute: “Iraunkorra izan nahi duen bizi-proiektu komun bat partekatzen duten pertsonen elkartea, non talde horretako kide izatearen sentimendu sendoak sortzen diren, kideen artean konpromiso pertsonala dagoen eta intimitate, elkarrekikotasun eta mendetasun-harreman biziak ezartzen diren. “. Beraz, odeleko ahaidetasuna egotea ohikoena izan arren, ez da zertan existitu behar.

Dena den, gradu bukaerako lan honek planteatzen dituen helburuak lortzearren, familiek izan ditzaketen formak ez dira aztertuko, baizik eta familia, gizarte-erakunde gisa, haurtzaroan betetzen dituen funtzioak identifikatuko dira. Izan ere, ebidentzia zientifikoak modu sendoan erakusten du familia-harremanak, eta ez familia-egitura edo forma, osasunaren eta ongizatearen eragile garrantzitsuena dela (Moreno, Ramos, Rivera, Sánchez-Queija, Jiménez-Iglesias, García-Moya, ... eta Leal-López, 2018). Hori horrela, familiak funtzio sozializatzaile eta hezitzailea du, bizi eta transmititzen dituen balioengatik, bai eta hezkuntza-estiloengatik ere (Sanchez, 2008). Izan ere, familiaren hezkuntza-esperientziak eta seme-alaben garapen ebolutiboari eta hezkuntzari buruz dituzten ezagutzen arabera, gurasoek sozializazio-prozesuaren nolakotasuna ezartzen dute (Rodriguez eta Torrente, 2003). Bederen, familia egiturak eta formak anitzak izan arren, hauek lirateke familiaren funtzio sozial nagusiak (Muñoz, 2005):

---

[5] Familia bateko kideen arteko odol-harreman estua egotea. Adibidez, bi guraso eta haien seme-alabak.

- ➔ Haurren biziraupena eta hazkunde osasuntsua ziurtatzea.
- ➔ Garapen psikologiko osasuntsua bermatzeko beharrezko afektu eta laguntza giro emozionala ematea.
- ➔ Ingurune fisiko eta sozialarekin modu trebean erlazionatzeko gaitasuna haurrei transmititzea.
- ➔ Haurraren hezkuntza eta sozializazio prozesua familiarekin partekatuko duten beste hezkuntza-testuinguru batzuetara irekitzea. Testuinguru horien artean, alegia, eskola nabarmentzen da.

Hortaz, familiaren funtzio hezitzailea eta sozializatzailea kontutan izanik, beste gizarte-talde batzuekin batera gizabanakoaren ezinbesteko garapen biologiko, psikologiko eta soziala bermatzen du (Louro, 2003). Beraz, familia testuinguruan sortzen diren kontsumo ohiturak eragin zuzena izango dute haurren garapenean, baita ikus-entzunezko produktuen kontsumoa ere. Hau da, familia testuinguruan bermatzen diren bizi-ohiturak eragin zuzena dute kontsumo ohiturekin, bigarren horiek bizi-ohituren parte baitira.

Hori guztiagatik, familia eragile sozializatzaile nagusia da, baino ez bakarra. Izan ere, eskolaren papera haurtzaroan erabakigarria da, nabarmena. Horregatik, eskola eta familiaren arteko erlazioa zein den azaldu eta eskolak kontsumoari ematen dion trataera identifikatuko da.

2.2.3.1. Eskola eta familiaren arteko erlazioa. Bi eragileen arteko kontsumoaren trataera bateratua eman daiteke?

Haurren garapen integrala bermatzea eskolaren eta familiaren eginbeharra da. Izan ere, bi eragile horien kooperazioa oinarrizkoa da hori lortzeko. Horrela izanik, haurren heziketa eraginkorra izan dadin bi eragile horien arteko erlazioa egokia izan behar da (Martinez, 2010). Erlazio hori sortu dadila, eskola eta familiaren harremana komunikazioan oinarritu behar da. Hau da, esku-hartze bateratua emateko baldintzak ezarri behar dira (Bochaca, 2015). Hala ere, gradu bukaerako lan honen helburua ez da erlazio horretan sakontzea, baizik eta eskolak eta familiak kontsumo ohiturei ematen dien trataera zein den ikertzea, kontsumo ohitura horiek patologia ezberdinen garapenean duen eragina identifikatzeko.

Ulertu beharra dago, alegia, familiaren eta eskolaren izaera historikoki definituta dagoela. Hau da, bi eragile horien nolakotasuna testuinguru historiko zehatz baten baitan ulertu behar dela eta, horrela izanik, gizartean gertaturiko aldaketak, aurrerapenak eta garapen sozialak familia eta eskola definituko dutela. Beraz, eskolari esleitzen zaizkion hezkuntza-betebeharrak gizartean ematen diren eraldaketekin batera doaz (Martínez, 2010). Hortaz, mass-medien bidez hedatzen diren

kontsumo ohiturak eta familiek bereganatuko dituztenak, eskolak egiten duen esku-hartzean eragingo du. Aldi berean, eskolak egiten duen edo egin dezakeen esku-hartzea familian eragiten du ere. Hortaz, lan honen xedea, ikus-entzunezko produktuek haurtzaroan duten eragina, patologia mental eta fisikoen garapenarekin lotura eta eskolak egin dezakeen tratamendua identifikatzea da.

2.2.3.2. Kontsumoa eta patologien arteko erlazioa.

Familia ezberdinek dituzten baliabide materialak eta bizi-ohiturak haurren garapenean eragin zuzena du. Izan ere, familia haurtzaroaren sozializazio eragile nagusia izanik, haurren garapen integrala bermatu behar du. Beraz, familia testuinguruan aurki daitezken babes eta arrisku faktoreak patologien agerpena baldintza dezakete. Gradu bukaerako lan honen kasuan, kontsumo ohitura osasuntsuak eta haurren beharrak asetzeko baliabideak babes-faktore gisa aurkezten dira. Beste aldetik, ikus-entzunezko baliabideen zein produktuen erabilera desegokia eta bizi-ohitura kaltegarriak arrisku-faktoreak dira eta haurren garapen ebolutibo osasuntsua oztopa dezakete, patologia eta psikopatologia ezberdinak agertzeko eta garatzeko aukerak handituz. Izan ere, familia-eredu bakoitzak familiaren osasuna mentala baldintzatzen duen bizimodu jakin bat dakar (Polaino-Lorente, 2009). Beraz, kontsumo eta bizi ohiturak, ikus-entzunezko baliabide eta produktuen kontsumoa barne, familiaren bizimoduaren parte dira eta, haurtzaroaren sozializazio prozesuan zuzenean eraginik, haurren garapen osasuntsua oztopa dezakete.

## 2.3. Patologia eta psikopatologia kontzeptuak

Patologien eta kontsumoaren arteko erlazioa oso konplexua da. Izan ere, patologien agerpena eta garapena ez dago kausa bakar batera mugatirik, eragile ezberdin eta anitzak kontuan hartu behar dira. Hala ere, erlazio hori identifika daitezen, lehenik patologia bat zer den argitu beharra dago. Bi modutan definitu ditzakegu: lehenengoak patologia diziplina zientifiko gisa kontenplatzen du, biologiaren adarra izanik eta gaixotasunak osatzen dituzten alterazio morfologiko eta funtzionalak eragiten dituzten kausak, sintomak eta zeinuak aztertzen dituenak. Bestetik, bigarrenak organo, sistema edo gorputz-aparatu baten gaixotasun multzoari erreferentzia egiten dio. Lehenengo definizioaren baitan psikopatologiaren kontzeptua koka daiteke. Hala ere, “psiko” aurrezkiak zeri erreferentzia egiten dion argitu beharra dago. Aurretik emandago definizioari eutsiz, psikopatologia psikologiaren eta psikiatriaren adarreko diziplina zientifikoa da, nahasmendu eta gaixotasun mentalen (psikopatologia orokorra) kausak eta izaera aztertzen dituena, bai eta horien adierazpen espezifikoak ere (Real Academia Nacional de Medicina de España, 2012). Hori horrela, psikopatologiaren definizioan sakontzea ezinbestekoa da kontsumoaren eta psikopatologiaren arteko erlazioa azaltzeko.

### 2.3.1. Psikopatologia definizioa

Aurreko hiru definizioek gorputzaren gaixotasun ezberdinei erreferentzia egiten diete. Patologia oinarrizko definizio orokorra izanik. Psikopatologiak, ordea, nahasmendu eta gaixotasun mentalei erreferentzia egiten dio. Beraz, kontsumoak nahasmendu eta gaixotasun mentalen garapenean izan dezakeen eragina aztertzea; horiek gauzatzeko kausak ikertzea, hain zuzen ere, psikopatologiaren markoan kokatua egongo litzateke. Hortaz, bi modutan erabili dezakegu psikopatologia hitza: alde batetik, eta aurreko definizioetan azaldu den bezala, nahasmendu eta gaixotasun mentalak aztertzen duen diziplina zientifikoa psikopatologia litzateke. Bestetik, nahasmendu eta gaixotasun mental ez-espizifikoak identifikatzeko eta izendatzeko psikopatologia terminoa erabili daiteke ere. Zehazki, psikopatologia klinikoa (Schneider, 1992). Dokumentu honetan zehar bigarren modura erabiliko da terminoa, hots, nahasmendu eta gaixotasun mentalak identifikatzeko eta izendatzeko era gisa.

Hori horrela, gaixotasun mentalak eta nahasmendu ezberdinak garatzeko kausak aztertzea lehentasunezkoa da. Horretarako psikologia erreferentziazko esparru gisa kokatu beharra dago, bizitzako etapa guztietan sor daitezkeen buruko nahasmenduak eta giza jokabidea ulertzeko baliagarria baita. Psikologia arloan, beharrezkoa bada ere, ikuspegi biologikoa ez da nahikoa nahasmendu horien sorrera eta garapena ulertzeko. Horien osagai soziala ezinbestekoa da modu zentzudunean jorratzeko (Belloch, Sandín eta Ramos, 2008). Hau da, osagai biologikoa, berez, ez da erabakigarria; aitzitik, garatzeko ingurune sozial egokia behar du. Hala, haurtzaroan edozein psikopatologia garatzeko arriskuak eta kausak identifikatzeko eta hautemate goiztiarra egiteko ezinbestekoa da osagai edo testuinguru soziala aztertzea. Beste hitzetan, arrisku-faktore psikosozialak aztertzea.

### 2.3.2. Psikopatologiaren jatorri biologiko-genetiko vs soziala

Aurretik esan den bezala, psikologia arloan ikuspegi biologikoarekin batera ikuspegi soziala erabakigarria da (Belloch, Sandín eta Ramos, 2008). Beraz, edozein nahasmendu edo gaixotasun mentala garatzeko arrisku-faktore psikosozialak zeintzuk diren aztertu beharra dago. Horren harira, osasun mentala definitzea erabilgarria da faktore horiek identifikatzeko. Osasunaren Munduko Erakundeak OMS-ek (2013) dioen bezala, osasun mentalaz hitz egiteak ongizate-estatu bati egiten dio erreferentzia, non gizabanakoak ingurumenaren premiei erantzuten dien eta subjektuaren berezko gaitasun guztiak emanez, eguneroko bizitzako egoera estresagarri normalei erantzuko eta gizartean produktiboa eta kooperatiboa izateko gai den. Beste era batera esanda, osasuna ez da gaixotasunaren gabezia bakarrik, subjektuak eragiten duen egoera fisiko, emozional eta sozial egokia ere bada. Beraz, argi dago osasun mentalaz hitz egiten dugunean jatorri biologikoaz gain,

osagai sozialaz ere hitz egiten dela. Bestalde, arrisku-faktore psikosozialak (OIT eta OMS) arrisku psikosozial gisa definitzen dira eta hainbat gizarte ingurunetan eragiten dute, familian eta gizabanakoaren praktika soziokulturaletan (Quitian and Ariza, 2015). Hala izanik, gizabanakoen inguru sozialetan eragiten duten arrisku horiek kontuan izan behar dira psikopatologien kausak, jatorria batik-bat, identifikatzeko.

Hala ere, jatorri genetikoen edo osagai biologikoen pisua ikertzea baliagarria da ere bi jatorrien inplikazio-maila zehazteko. Osasun mentalaren eta nahasmendu mentalen baldintzatzaileek ezaugarri indibidualak ez ezik, horien artean gure pentsamenduak, emozioak, portaerak eta besteekiko elkarreraginak kudeatzeko gaitasuna, baita faktore sozialak, kulturalak, ekonomikoak, politikoak eta ingurumenekoak ere parte hartzen dute, hala nola politika nazionalak, gizarte-babesa, bizi-maila, lan-baldintzak edo komunitatearen gizarte-laguntzak. Hortaz, buruko nahasmenduak eragin ditzaketen beste faktore batzuk estresa, herentzia genetikoa, elikadura, jaiotza inguruko infekzioak eta ingurumen-arriskuen eraginpean egoten dira (Osasunaren Munduko Erakundea OMS, 2018). Kasu honetan, ordea, herentzia genetikoaren eragina zehaztuko da.

Estresa eta antsietatea erabiliko dira herentzia genetikoak haiengan duen eragina aztertzeko. Hortik abiatuta, orokortze-prozesu bat aurrera eramango da beste psikopatologia ezberdinetan duen erabina zehazteko. Horrela izanik, beharrezko da bien definizioa egitea eta haien arteko aldeak argitzea. Espainiako Medikuntzako Errege Akademia Nazionala-Real Academia Nacional de Medicina de España (2012) estresa da antsietateak sortzen duen tentsioa, eta gainestimulazio psikikoa edo/eta somatikoa dela dio, gizabanakoa ekintzarako, borrokarako edo ihesarako prestatzen duena eta, denboran zehar, egokitzapenaren sindrome orokorra sortzen duena. Hau da, kanpo estimuluei erantzuteko eta egokitzeko sortzen den tentsioa. Estresa egoera patologiko batekin lotu ohi da ere (Valdés eta De Flores 1985). Hortaz, eta Espainako Medikuntzako Errege Akademia Nazionalak eginiko definizioari eutsiz, estresak estimulazio psikikoa eta somatikoa sortzen du, hots, psikean eta gorputzean du eragina. Beraz, estimulazio edo tentsio hori erregulatzen duen joera genetiko heredaturik dagoen ala ez aztertu beharra dago. Aztergai hori argitu aurretik, alabaina, antsietatearen definizioa egitea komeni da. Antsietatea, zehaztasunik gabeko estimulu bat mehatxu gisa sentitzean sortzen den sentimendu desatsegina da, tentsio orokorreko sentsazio somatikoekin, aire faltarekin, asaldurarekin eta arriskuari irtenbide bat bilatzearekin batera. Larritasunaren antzekoa da, nahiz eta honetan sentsazioak ezberdinak izan, eta beldurretik bereizten da, honetan arrisku zehaztua eta horren kontzientzia dagoelako. Sintoma garrantzitsua da medikuntzan eta, batzuetan, entitate nosologikoa[6] ere bada (Real Academia Nacional de Medicina de España 2012). Esan daiteke, beraz,

[6] Gaixotasunak deskribatzen, bereizten eta sailkatzen dituen medikuntzaren zatia.

estresa eta antsietatea elkar lotuta daudela. Hala izanik, denboran luzatzen diren egoera estresanteak antsietatea sor dezaketela, eta, sintoma bat izateaz gain, entitate nosologikoa da ere, hots, aparteko gaixotasun edo psikopatologia bezala kontsideratzen da. Hortaz, estresarekin planteatutakoaren antzera egin daiteke: antsietatea pairatzeko osagai genetiko heredaturik dagoen ala ez.
Hori horrela, bi dira aurreko definizioetatik baliagarriak diren ideiak:

- ➔ Kanpo estimulazioek psikean edo gorputzean sorrarazten duten tentsioa, momentu zehatz batean edo denbora luzatzen dena.
- ➔ Estresa eta antsietatea pairatzeko osagai genetiko heredaturik dauden ala ez argitzea. Eta, horren kontrara, faktore psikosozialen pisua erabakigarria diren demostratzea.

Osagai biologikoak ez dira bigarren plano batean utziko, jatorri genetikoa eta soziala plano berean jarri baizik. Hau da, egitura konplexu baten alderdi banaezinak diren heinean, alderdi biologikoa gizakiaren dimentsioetako bat da (Valdés eta De Flores, 1985). Honek esan nahi du ezin dela gaixotasun edo nahasmendu mentalik jatorri genetikoetara soilik murriztu eta, alderantziz, horren garapenean esku hartzen duten dimentsio guztiak kontuan izan behar dira. Hortaz, psikopatologia ezberdinen osagai psikologikoak, sozialak eta biologikoak aztertu beharra dago, horien dimentsio biopsikosoziala[7] sortuz (Sierra, Ortega eta Zubeidat, 2003).

#### 2.3.2.1. Psikopatologien dimentsio biopsikosoziala

Aurretik esan den bezala, gaixotasun mentalen dimentsio guztiak kontuan izatekoak dira. Horiek osagai psikologikoak, sozialak eta biologikoak izanik. Beraz, deskribatutako dimentsio horien ageriko ondorio bat nahasmendu mentalen ulermen integratuagoa eta holistagoa[8] da, eredu biopsikosozialaren paradigmapean, non giza portaeraren ekintzak gizakiaren osotasun gisa interpretatzen diren, eta haren jokabide-mekanismoak atzeman eta aztertzeko, elementu eta determinatzaile biologiko, psikologiko eta sozialen integrazioa egiten diren. Paradigma honen ikuspuntutik, osasuna eta gaixotasuna eman dadin, baldintza elementu horien arteko elkarrekintzaren ondorio baino ez da (Ballús, 1983; Belloch eta Olabarría, 1993). Faktore genetikoak edo biologikoak, berez, ez dira erabakigarriak. Horietaz gain, pertsona baten osasunean eta gaixotasunean parte-hartzen duten eragile psikologikoak eta sozialak kontuan izatekoak dira, horien definizioa egitea ezinbestekoa izanik. Eragile horien artean, alegia, arrikusku eragileak bereziki

[7] Pertsona baten osasuna dinamikoa eta multifaktoriala da, eragile biologikoen, sozialen eta psikologikoen arteko elkarreragina hura baldintzatuz (Belloch eta Olabarría, 1993).
[8] Errealitate bakoitza osatzen duten osagai guztien batura ez ezik, errealitatea osotasun gisa ulertzea aldarrikatzen duen doktrina (Real Academia Española, s.f., definición 1)

aztertuko dira. Berez, horiek direlako pertsona edo komunitate baten osasuna kaltetxeko arriskuak (Herrera, 1999).

Eragile psikologikoak zeintzuk diren azalduko dira horien analisi zehatza egin dadin. Patricia Herreraren hitzetan (1999), hainbat dira kontuan izan beharreko arriku-eragile psikologikoak:

- ➔ Oinarrizko premia psikologikoen asegabetasuna. Horien artean, autokontzeptua, independentzia, harreman pertsonal intimoak eta taldearen onarpenaren beharra.
- ➔ Hezkuntza eta hezkuntza-patroi desegokiak. Horien artean, gainbabesa, autoritarismoa, hitzezko erasoak edo/eta fisikoak, mugarik gabeko baimenak eta agintaritza zatitua edo aginte kontraesankorrak.
- ➔ Giro frustragarria izatea. Inguruko pertsonen afektu-adierazpenak ez izatea, bere pertsonarekiko zentsura arrazoigabea, bizitza pribatuan mehatxuak, zigorrak eta intromisioak jasotzea eta, oro har, problematika hauengan urruntasuna adieraztea.
- ➔ Gaizki bideratutako sexualitatea. Sexu-gaiekin lotutako aurreiritziak direla-eta, eremu horrekiko komunikazioa murriztuta geratzen denean eta pertsonak beste bide batzuk erabiltzen dituenean, ez beti egokiak direnak, bere erantzunak eta informazioak bilatzen dituenean edo, kasu askotan, hutsune handiak izaten dituenean, arazo handiak sortzen zaizkiolako ezjakintasunagatik, desinformazioagatik eta sexualitateari buruzko iritzi okerrak osatzeagatik.

Arrisku-eragile edo faktore psikologiko hauek haurtzaroan eta nerabean parte-hartzen dute, etorkizunean patologiak garatzeko probabilitateak handituz. Era berea, babes-faktoreak eta eragileak aurkitzen dira ere. Beste aldetik, eta aurreko eragileekin estuki lotuta egonik, arrisku-eragile sozialak aztertuko dira. Patricia Herrerak honako hauek ezartzen ditu (1999):

- ➔ Familia giro desegokia izatea. Familia disfuntzionala izanik, arau eta rol argiak ez izatea.
- ➔ Talde antisozialetako[9] kide izatea. Autokontzeptua eta autoebazpena asetu dadin taldearen kodea jarraitu. Talde onarpena patroi desegokien imitazioa dakar.
- ➔ Promiskuitatea. Arrisku sozialeko faktore bat da, eta haurdunaldi goiztiarrak eta sexu-transmisiozko gaixotasunak eragiteaz gain, nerabearen nortasuna deformatzen duen autobalorazio eta autoestimu negatiboa ere eragin dezake.
- ➔ Eskola eta/edo lana uztea. Gizarteko oinarrizko jardueratik kanpo geratzea.
- ➔ Eskola, kultura eta ekonomia maila baxua izatea. Elementu horiek osasunaren oinarrizko baldintzak dira.

[9] Jokabide bortitzak eta deliktiboak izaten dituzten taldeak (Rodrígez eta Torrente, 2003). Hortaz, gizarte arauk eta rolak modu desegokian barneratzen dituzten taldeak.

Aipatutako arrisku-eragileak haurtzaroan hasten diren eta nerabezaroan mantendu eta sakontzen diren eragileak dira. Hortaz, lan hau Lehen Hezkuntzako arlokoa izanik, Lehen Hezkuntzan parte-hartzen duten arrisko-eragileak aztertuko dira. Hori horrela, familiaren eragina eta eskola, kultura eta ekonomia maila baxua izatea arrisku-faktore psikosozial[10] nagusiak dira. Beraz, eskolaren eta familiaren eragina zehaztazunez aztertuko dira.

2.3.2.2. Babes eta arrisku faktoreak haurtzaroan

Haurtzaroan sozializazio eragile nagusia familia izanik, bertan aurkitzen dira babes- eta arrisku-faktore esanguratsuenak. Hala ere, eskolaren papera eta garrantzia kontuan izatekoa da ere, haurren garapena eta heziketa integrala familiekin batera bermatzen duelako. Beraz, bi eragile horietan aurkitzen diren babes- eta arrisku-faktore nagusiak aipatuko dira orain, beti ere lan honen helburuetan oinarrituta:

**1. Taula**

*Babes- eta arrisku-faktoreak eskolan eta familian*

| | FAMILIA | ESKOLA |
|---|---|---|
| Babes-faktoreak | ● IKTen erabileran denbora-mugak jartzea<br>● IKT produktu ezberdinetan erreproduziten diren edukiak egokitzea adinaren arabera<br>● Adin txikiko haurrekin publizitatea ekiditzea<br>● Familia giro ona eta baliabide materialak izatea<br>● Familiaren kontsumo ludikoa eskolaren kontsumo | ● Irakasleek IKTen inguruko formakuntza jasotzea<br>● Ikasleek IKTen erabileran prestakuntza jasotzea, zeharkako eduki gisa<br>● IKTak helburu didaktikoak lortzeko erabiltzen diren baliabideak izatea. Proiektu edo arazoen ebazpenean oinarria<br>● Kontsumo didaktikoa egiteko baliabideak |

[10] Pertsonaren alderdi psikologikoen eta sozialen arteko elkarreragina (Real Academia Nacional de Medicina de España, 2012). Horrela izanik, alderdi horiek modu ez-osasuntsuan gara daitezen parte-hartzen duten arrisku-faktoreak dira.

| | | |
|---|---|---|
| | didaktikoekin koherentea eta osagarria izatea. | izatea: Hezkuntzara bideratutako sistema eragileak |
| Arrisku-faktorak | ● IKTen erabilera ez gidatua, denbora-mugarik eta edukirik egokitu gabe<br>● Publizitatea kontsumitzea baliabide eta produktu ezberdinetan<br>● Familia giro ezegonkorra eta baliabide material gutxi<br>● Eskolaren eta familiaren arteko komunikazio eta koordinazio eza | ● Irakasleen prestakuntza eskasa eta, hortaz, ikasleek IKTak modu desegokian erabiltzea<br>● IKTak klaseak emateko edo jarduera ezberdinen osagarri gisa erabiltzea. IKTak, beraz, ez lirateke zeharkako edukiak izango<br>● Publizitatea ez ekiditzea<br>● Hezkuntza arloan erabiltzen diren IKT baliabideak enpresa pribatuenak izatea. Enpresen interes merkantilak Hezkuntza Sisteman txertatuta egotea |

2.3.2.3. Familia eta osasuna

Familiaren eraginaz hitz-egiten denean, honek indibiduaren garapenean eta sozializazio prozesuan jokatzen duen paperaz hitz-egiten da. Hortaz, Lehen Hezkuntzan eta, hain zuzen ere, haurtzaroan, familiak berebiziko garrantzia du portaera eta jokabide egokiak bereganatzeko. Izan ere, familia da oraindik sozializazio-eragile garrantzitsuena (Rodríguez eta Torrente, 2003). Hortaz, pertsonek edozein patologia gara dezaten, parte-hartzen duten babes eta arrisku-faktore nagusiak familian aurkitzen dira. Beraz, bizitza-kalitatea eta osasuna garatzeko eta hobetzeko ezinbesteko

gizarte-egitura familia da. Izan ere, epidemiologiaren[11] garapenak eta aurrerapenak erakutsi du gaur egungo munduan nagusi diren gaixotasun eta patologia asko gizarte-egitura jakin batzuekin eta norbanakoen portaerarekin lotuta daudela (Horwitz, Florenzano eta Ringeling 1985). Hortaz, familiak haurren garapen ebolutiboan eta sozialean duen eragina nabarmena da. Izan ere, familia-giro positiboak gizarte-balioak eta arauak transmititzen laguntzen du (Rodriguez eta Torrente, 2003). Beraz, familia-giro negatiboak eta bizimodu ez-osasuntsuak gizarte-balioak eta arauen transmisioa oztopatzeaz gain, osasun problematika ezberdinak garatzeko oinarri egokia sor dezake. Familia harreman estuak, seguruak eta osasuntsuak alde batetik, gatazkatsuak edo antsietatea sortzen dutenak bestetik, haurraren irakaskuntza eta garapena baldintzatzen dute (Craig, 2009). Hortaz, familia oinarrizko gizarte-egitura izanik rol aktiboa du osasunean eta patologien garapenean.

Izan ere, pertsonaren hasierako garapenean ez da egokia ikusentzunezkoen erabilera, neuronen konexioak sortzen ari baitira eta, garapenaren psikologiari erreparatzen badiogu, eta pertsonaren autonomia 8 urte inguru kokatzen bada, bai eta haurrek errealitatea eta fantasia ezberdintzen hasteko adian 6 urteren inguruan badago, baliabide teknologikoen presentzia helduaren gidaritzan egon beharko luke lagundua. Berez, haurtzaroa bizitzaren fase gisa definitzen da, gurasoekiko edo beste heldu batzuekiko mendekotasunaren ideietatik abiatuta. Haurtzaroa autonomia pertsonal, sozial eta juridikoaren garapen eraginkor eta progresiboaren garai gisa ulertzen da (Bruñol, 1997) , batik bat, haurraren garapen kognitibo eta psikologikoa bermatu behar delako. Hori guztiagatik, gero eta erabiliagoak eta zabalduagoak diren ikus-entzunezko baliabideen erabileran hezitu behar da, garapenean eragin negatiboa ez dezaten. Hortaz, familian aurkitzen diren eta patologien garapena ekiditu edo bermatu dezaketen babes eta arrisku faktoreak azalduko dira.

Familian transmititzen diren ohiturak eta, horien artean, osasun-arriskuen pertzepzioa familiako kideek gaixotasunaren aurrean dituzten jarrera eta jokabideak baldintzatzen dute, baita arreta medikoko zerbitzuen erabilera ere (Horwitz, Florenzan eta Ringeling, 1985). Hau da, familiak transmititzen duen ohituren artean, osasunari egiten zaion trataera egokia babes-faktorea da. Beste aldetik, familiek haurrei ematen dien berme eta babes emozionala ezinbestekoa da. Berez, gurasoak maitakorrak izatea, seme-alabekin esperientzia pertsonalak partekatzea, orientazioa eskaintzea eta, batik bat, komunikazio sendoa izatea haien beharrak ezagutzea lagunduko du. Honek haurren autonomia eta konfidantza garatzea, ongizate psikologikoa bermatzea eta gaitasun sozial eta akademikoak garatzea ahalbidetuko du (Moreno, Ramos, Rivera, Sánchez-Queija, Jiménez-Iglesias, García-Moya, … eta Leal-López, 2018). Beste hitzetan, familia harreman egokiak eta osasuntsuak haurren behar

[11] Diziplina zientifikoa, osasun publikoaren adarra, biztanleria jakin batean edozein gaixotasunen (infekziosoa izan edo ez) eta gaixotasun horren agerpenean, maiztasunean, banaketan eta bilakaeran eragina duten ingurumeneko, genetikako, jokabideko, sozioekonomiako eta abarreko faktoreen arteko erlazioa aztertzen duena (Real Academia Nacional de Medicina de España, 2012).

psikologikoak asetu eta garapen ebolutiboa bermatuko du. Izan ere, familiak kideen oinarrizko premiak asetu eta zainketa funtzioak betetzen ditu, baita etxeko baliabide ekonomikoak lortuz eta administratuz (Cid Rodríguez, Montes de Oca Ramos eta Hernandez Díaz, 2014). Beraz, familiak kudeatu behar du etxean dituzten baliabide ezberdinen erabilera ere: elikadura, kirola eta aisialdiak, adibidez. Asialdien artean, alegia, ikus-entzunezko baliabideen erabilera kudeatu behar du. Hortaz, streaming plataformen, telebistaren eta bideo-jokoen erabilera egokia den heinean, ez du zertan garapen ebolutiboan eragin negatiboa izan behar. Hala ere, familak erabilera egokian hezi ez gero, orientazioa eskaini ez gero eta, batik bat, baliabide horien kontsumo osasuntsua bermatu ez gero, patologia ezberdinak garatzeko testuingurua sor dezake.

Ondorioz, familiaren testuingurua eta bertan aurkitzen diren babes- eta arrisku-faktoreak eragin zuzena izango dute osasunean. Familiak, haurren adinaren arabera, IKTen erabileran denbora-mugak jartzea, edukiak neurtzea eta bertan hedatzen den publizitatea murriztea ikus-entzunezko baliabide eta produktuen erabilera osasuntsua bermatzen du. Halaber, hori guztia familiaren bizi- eta kontsumo ohitura egonkorrekin batera, haurren garapen ebolutiboa errespetatzen duen testuingurua dakar. Hortaz, eskolak familiako babes-faktoreak indartzeko eta sendotzeko aukera du, baita familiaren arrisku-faktoreak murrizteko eta ekiditzeko aukera ere. Eskolak IKTen kontsumo didaktikoa egin eta teknologia berrien zeharkako erabilera bermatu behar du, familian egiten den kontsumo ludikoarekin osagarria eta koherentea izanik. Hori lortzeko, alabaina, eskola eta familiaren komunikazioa eta koordinazioa ezinbestekoa da.

#### 2.3.2.4. Eskolaren eragina osasunean

Eskola haurtzaroaren sozializazio eragile garrantzitsua izanik eta, halaber, haurren garapen integrala eta heziketa kognitibo, psikologiko eta soziala bermatzen duen eragilea izanik, ukaezina da honek osasunean duen eragina. Izan ere, eskolak ez du soilik heziketa akademikoaz hornitzen, baita ohitura osasuntsuaz ere. Horren adibidea, alegia, Nafarroako eskolek eskaintzen dituzten jantokiko zerbitzua, zeinak dieta osasuntsua eta orekatua eskaini eta sustatu behar duen (Nafarroa, Nafarroako Gobernua, 2019). Beste aldetik, Nafarroan aplikatzen den Skolae programak heziketarako baldintza egokiak sortzeko helburuarekin, zera proposatzen du: “Ezagutzan, askatasunean eta etorkizunari buruz genero-baldintzatzailerik gabe erabakitzeko gaitasunean finkatu behar da prozesua, berdintasun-eza identifikatzen, haren aurka borrokatzen eta berdintasun-eskubidea gauzatzen (kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional eta sexu-orientazio bakoitzaren esparruan) ikasiz.” (Hezkuntza Departamentua, 2022). Horrela izanik, badaude baliabideak eskolaz eremu inklusiboa eta osasuntsua egiteko. Ondorioz, badira Hezkuntza Departamentutik sortzen diren babes-faktoreak ikasleen aniztasunari erantzuteko. Hala ere, azterketa zorrotzagoa eginik indentifika daiteke ea

baliabide horiek ikus-entzunezko produktuen eta baliabideen eragina eskolak kontuan izaten den ala ez; eta, lan honek planteatzen duenaren harira, haurtzaroan ikus-entzunezko baliabide eta produktuek duten eragin negatiboari erantzuteko neurriak ote dauden ala ez identifikatzea. Babes-faktoreak identifikatzea, hurrenez hurren.

### 2.3.3. Kontsumo ohiturekin erlazionatutako psikopatologiak: AFH-N, obesitatea, antsietatea eta depresioa

Familiak transmititzen dituen bizi-ohiturak haurren sozializazioaren oinarria dira. Hortaz, haurtzaroko sozializazio prozesuan bereganatzen diren kontsumo ohiturak osasuntsuak edo kaltegarriak izan daitezke eta, horregatik, eskolak haurren eta familien beharrak identifikatu eta kontsumo ohituren inguruko gogoeta eta erabilera osasutsua sustatu behar du. Haurren garapen ebolutiboa bermatu eta kontsumo ohiturak horiengan duen eragina identifikatu behar du ere. Hortaz, eskolaren eta familiaren eragina osasunean erabakigarria izanik, haurtzaroan bereganatzen diren kontsumo ohituren eta patologien arteko erlazioa identifikatuko da. Zehazki, AFH-N, obesitatea, antsietatea eta depresioa izango dira aztertuko diren patologiak.

➔ AFH-N-ren definizioa eta jatorria

Arreta faltaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua haurtzaroan sortutako eta bizitzan zehar eragiten duen neurogarapenaren nahasmendu neurobiologikoa da, hiru sintoma tipiko izanik: Arreta defizita, inpultsibotasuna eta hiperaktibitate motorra edo bokala (Adana Fundació, s.f.). Hori horrela, nahiz eta AFH-N-ren etiologia[12] argi ez egon, jatorri genetikoa nagusitzat hartzen da, patologia honen agerpena %75ean kausa genetikoa izanik. Hala ere, amak haurdunaldian kontsumitzen duen alkohola edo tabakoa eta baldintza sozial kazkarrak AFH-N-ren agerpena baldintza dezakete (Clínica Universidad de Navarra, 2022). Beraz, familiaren baliabideak eta bizi-ohiturak haurdunaldian baldintzatu dezakete patologia honen agerpena. Beste aldetik, behin haurtzaroan agertu den, haurraren garapena ahalik eta osasuntsua izateko ekiditu behar diren arrisku-faktoreak identifikatu behar dira. Horien artean, alegia, haurren ikus-entzunezko baliabideen eta produktuen kontsumo ez gidatua, hark izan dezakeen eragin negatiboa patologiaren sintomak indartu ez ditzan. Horien kontsumoa eragin zuzena izan ez arren (Fundación CADAH, 2017), kontuan izateko ingurumen faktorea edo kanpo estimulua da bederen, babes edo arrisku faktorea izateko aukera izanik.

➔ Obesitatearen definizioa eta jatorria

[12] Gaixotasun kausen ikerketa (RAE, 2022).

Obesitatea nahasmendu bat da, gantz-ehunean gantz gehiegi metatzen denean eta, hortaz, gorputzaren pisua gora egiten duenean. Agerpenaren jatorria eta arrazoiak anitzak dira: sedentarismoa, elikadura desegokia edo metabolismoan eta asetasun-mekanismoan desorekak egotea (Real Academia Nacional de Medicina de España, 2012). Hala ere, gradu bukaerako lan honek kontsumo-ohituren eta ikus-entzunezko baliabideen eta produktuen eragina identifikatu nahi duenez, sedentarismoa eta elikadura desegokia aztertuko dira. Bi horiek familien baliabideekin eta bizi-ohiturekin estuki lotuta dago. Izan ere, gizarte-klase baxuko, baliabide gutxiko eta ikasketa maila baxuko familietan ohikoagoa da (Sánchez-Cruz, Jiménez-Moleón, Fernández-Quesada eta Sánchez, 2013). Kasu horietan, elikaduraren kalitate-maila baxuagoa da ere, baliabide gutxiko familiek elikagai pobreagoak eskuratuz. Bestetik, sedentarismoa eta, oro har, praktika zein jokabide sedentarioak mass-medien eta ikus-entzunezko baliabideen sorrera eta hedapenarekin handituz joan da. Izan ere, teknologia berri horien zabalpena: telebista, interneta, telefonoak…bizimodu berriak sortu dituzte (García, 2009). Hau da, gure bizitzaren parte izanik, teknologia berri horiek gure bizimodua zein bizi-ohiturak baldintzatuko dituzte. Muñoz Garcíaren hitzetan (2009), telebistaren erabilera desegokiak erikortasun berriak sor dezake pediatria arloan. Beraz, telebistarekin batera, beste ikus-entzunezko baliabideen erabilera desegokia bultzatuz gero, haurren garapen ebolutibo osasuntsua oztopa daiteke. Obesitatea eta jokabide sedentarioak, alegia, gurasoek transmititzen dituzten bizi-ohituren parte dira eta, horiekin batera, jarduera fisikoa egiteko haurrek jasotzen duten estimulu-mailaren arabera agertuko dira (Rodulfo, 2019).

Laburbilduz, obesitatea eta jokabide sedentarioak familiak dituen bizi-ohituren arabera ager daitezke. Hortaz, elikadura desegokia, jarduera fisiko gutxi egitea eta ikus-entzunezko baliabideen erabilera ez gidatua arrisku-faktoreak dira ere. Eskolaren papera, ordea, familia eta ikasleen behar espezifikoak identifikatzea eta arrisku-faktore horietan esku-hartzea izan behar da.

➔ Antsietatearen definizioa eta jatorria

Antsietatea gizaki guztiek sentitzen duten sentimendua da, era ezberdinetan ager daitekena: egoezina, loezina, hiperaktibitatea, sumikortasuna edo beldurra. Izan ere, zehaztu gabeko zerbatek mehatxua sentitzearen sentimendua da (Real Academia Nacional de Medicina de España, 2012). Hala ere, beldurra sentitzea, mehatxua, ez da zuzenean antsietatearekin lotu behar. Lehenengo horrek, ordea, mehatxu erreal batek eragiten duen garun-egoera da eta organismoak sahieteko egiten duen estimulua da. Bigarrenak, berriz, mehatxuzko estimulorik ez dagoenean sor daiteke (Tayeh, Agámez eta Chaskel, 2016). Hortaz, haurtzaroan familiaren egoera ezegongorrak edo eskolan esperientzia ezatseginak bizitzea beldurra eta antsietatea sentitzera eraman dezakete. Familiak bizi dituen egoera estresanteak, gurasoen, lagunen edo beste eragileen gutxiespena edo eskola

esperientziak baldintzatzaileak dira. Gradu bukaerako lan honen helburua, alegia, ikus-entzunezko baliabideen kontsumoaren eta antsietatearen artean erlazio bat aurkitzea denez, hauen kontsumoak egoera estresanteak sor ditzakeen ala ez identifikatu behar da. Baita baliabide horien gehiegizko erabilerak eguneroko bizitzan oztopoak sor ditzakeen ere. Era berean, mass-mediek eta sare sozialek sortzen eta hedatzen dituzten pertsonen irudi desitxuratuak haurren autokontzeptu eta autoestima desegokia garatzera eraman dezake, antsietatea sentitzeko arriskua handituz. Beraz, lan honek ikus-entzunezko baliabideak eta produktuak antsietatea garatzeko arrisku-faktore gisa identifikatzen du.

➔ Depresioaren definizioa eta jatorria

Depresioa eta antsietatea elkarrekin ager daitezke. Izan ere, haurrak denbora luzez testuinguru estresanteetan biziz gero, depresioa garatzeko aukerak handiagoak izaten dira. Berez, bi horiek erantzun afektiboak dira, egokitze-funtzio garrantzitsuak betetzen dituztenak (Andrés, Canet Juric, Castañeiras eta Richaud de Minzi, 2016). Depresioa, ordea, gogo-aldarte tristea, malkutasuna, energiarik eta bizitasunik gabe egotea, angustia, minusbaliotasun pertsonala eta autoerreprotxeekin batera agertzen da (Real academia Nacional de Medicina de España, 2012). Hortaz, depresioa garatzeko arrazoi ezberdinak egon arren, lan honek minusbaliotasun pertsonala eta autoerreprotxea erdigunean jartzen ditu. Izan ere, sare sozialak, mass-mediak, bideojokoak eta streaming plataformak hedatzen dituzten errealitatearen irudi desitxuratuak eta horrek sortzen duen estresa, autokontzeptua eta autoestimua haurrengan arrisku-faktorea izan daiteke. Berez, teknologia berriak bizitzaren parte dira, baita eskoletan ere, non digitalizazio prozesuak aurrera eramaten ari diren. Hortaz, adin txikietan gidatua izatea ezinbestekoa da, ez bakarrik erabilera arduratsuan hezitzeko, baita baliabide eta produktu teknologiko horiek garapenean eragin negatiboa izan ez dezaten. Eskolak problematika eta behar berri horiek identifikatu eta esku-hartu behar du, bai familiekin elkarlanean arituz, bai hezkuntza profesional eta dozentei formakuntza eskainiz. Honela, alegia, eskolek familiak eta ikasleak dituzten beharrei erantzuteko aukera izango dute, hots, gabezi eta behar psikologikoei aterabide pedagogikoa izatea.

### 2.3.4. Psikopatologien eta teknologia berrien arteko erlazioa

Teknologia berrien erabileraren eta patologia zein psikopatologien arteko erlazioa identifikatzeko, lan honek ikus-entzunezko baliabideen eta produktu ezberdinen erabilerak haurren garapenean duen eragina azaleratzen du. Zehazki, erabilera desegokia eta ez-gidatuak jokabidean eta garapen psikologiko eta kognitiboan izan dezakeen eragina. Beraz, ikus-entzunezko baliabide guzti horiek teknologia berri horien baitan kokatzen dira, IKT informazio eta komunikazio teknologien

baitan, hain zuzen ere. 60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak zera dio 4. artikuluan: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasketarako erabili behar dira; baita 8. artikuluan ere, zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak eskuratu behar dira. Dena delakoa, eskolak IKT-en erabileran, ikus-entzunezko baliabideak barne, hezitu behar du. Heziketa honek, alegia, familien eta ikasleen behar psikologikoak eta fisikoak kontuan izanik. Hortaz, eskolak ikus-entzunezko baliabide eta produktuen kontsumo ohiturak ezagutu eta horiek sortzen dituzten behar psikologiko eta fisikoei erantzuteko prestakuntza jaso behar du.

2.3.4.1. Ikus-entzunezko baliabideen kontsumo ohitura ez-osasuntsuak psikopatologiak garatzeko eragile gisa

Ikus-entzunezko baliabideen kontsumo ohitura ez-osasuntsua aipatzen denean, horien erabilera ez gidatuaz hitz egiten da. Hau da, haurren garapenean duten eragina identifikatu eta adinaren arabera erabilera arduratsua eta hezigarria bermatu behar da. Izan ere, teknologia hauen erabilera haurren irakaskuntza prozesua eta sozializazioa eragiten du (Bringué eta Sádaba-Chalezquer, 2010). Dena den, baieztapen hura ez dago guztiz onartuta. Hortaz, Alberok (2002) dio internetak, **ikus-entzunezko baliabide gisa**[13], sozializio bideak hedatzen duen arren, ez du sozializazio prozesua bera eraldatzen. Era berean, ez luke irakaskuntza prozesua eraldatuko ere, irakaskuntza bide berriak sortu baizik. Dena delakoa, teknologia berriak kanpo-estimuluak dira eta, beraz, haurrek kanpo-estimulu hauei etengabe eraginpean egonik, zer egin eta zer ez argitu behar da. Aurretik esan den bezala, eskolak IKT-en erabilera arautzen du. Hala ere, familia testuinguruan ikus-entzunezko baliabideen erabileraren interbentzioa egin behar da ere, kontsumo-ohiturak ahalik eta osasuntsuak izateko, babes-faktoreak indartuz; eta, aldi berean, arrisku-faktoreak ekiditzeko. Hori horrela, ikus-entzunezko baliabideen kontsumoa kanpo-estimulu gisa identifikatu behar da. Eta, kanpo-estimulua izanik, honek organismoan duen eragina aztertu.

Familiek teknologia berrien erabileran mugarik jarri eta erabilera arduratsua irakatsi ez gero, haurrek mendekotasuna gara dezakete. Mantillak (2017) dioen bezala, gehiegizko erabilerak kontrol-galera, abstinentzia-sintomak (antsietatea, depresioa, suminkortasuna), gero eta erabilera denbora gehiago behar izatea eta, oro har, eguneroko bizitzan ondorio negatiboak dakartza. Dena delakoa, kanpo-estimulu horiei muga eta gidarik gabe egotea: telebista, bideojokoak, interneta, streaming plataformak eta segapotoa, hain zuzen ere, haurtzaroko garapen ebolutiboan eragin eta mendekotasun sintomak adin txikitatik garatzera eraman dezakete.

[13] Letra lodiz idatzita dagoena lan honen idazleak idatzitako koma-artea da.

Mass-medietan, telebista sailetan, streaming plataformetan eta ikus-entzunezko baliabide guztietan, alegia, haurrei bideratzen zaizkien edukiak aurki daitezke. Izan ere, haurrak subjektu independiente gisa hautematen dira, publiko espezifiko bezala. Beraz, sozializazio prozesuaren parte diren ikus-entzunezko baliabide hauek haurrengan bideratzen zaizkien produktu eta eduki beterik daude. Horrek guztiak, alabaina, ez du zertan eragin negatiboa izan behar. Izan ere, badira telebista sailetan, streaming plataformetan edo internetetan bertan baliabide didaktiko ugari, haurren irakaskuntza prozesua aberasten dutenak. Hala ere, haurrek baliabide horiekin ezartzen duten harremana izango da haiengan eragin negatiboa duen ala ez zehaztuko duena. Hau da, gurasoen gidaripean kontsumitzea ala IKT-en eraginpean egotea. Bigarren honek mugarik gabeko erabilerari egiten dio erreferentzia.

## 2.4. Eskolan Informazio eta Komunikazio teknologiei (IKT) ematen zaien erabilera

Informazio eta Komunikazio teknologiak (IKT), non ikus-entzunezko baliabide eta produtuak kokatzen diren, gaur egun presentzia nabarmena dute. Familiek eta eskolek egunerokotasunean erabiltzen dituzte. Hortaz, haurren sozializazio prozesuaren parte diren heinean, hauen kontsumo arduratsuan hezitu beharra dago. Orokorrean, familiak IKT-en erabileran hezitzeaz arduratzen dira. Hala ere, etxean egiten den IKT-en erabilera familiak dituen kontsumo-ohiturekin estuki lotuta dago. Beraz, kontsumo ohitura horietan arrisku-faktoreak egon daitezkenez, gradu bukaerako lan honen marko teorikoan identifikatu den bezala, eskolak horiek prebenitzeko esku-hartze planifikatu bat eduki behar du. Hortaz, eskolaren eta familien koordinazioa indartu eta psikopatologia ezberdinen garapena ekiditzeko baliabideak izan behar dira. Horretarako, ordea, teknologia berrien problematikaz hausnartu eta teknologia berrien erabileraren indargunean eta arriskuak identifikatu.

### 2.4.1. IKT-en erabilera ludiko eta didaktikoaren ezberdintasuna eta arriskuak

Familian ikus-entzunezko baliabide eta produktuei ematen zaien erabilera aisialdira bideratuta dago. Hortaz, IKT-ak haurren garapenean duten eragina dela eta, kontsumo ohitura osasuntsuak eta erabilera arduratsua bermatu behar da. Beste aisialdiekin egiten den bezala, IKT-en erabilera neurtuta eta gidatua izan behar da, bereziki haurtzaroko lehenengo etapetan. Haurrek IKT-etan kontsumitzen dituzten edukiak haien adinetara egokituta egon behar da bederen, eta denbora-erabilera mugatua. Modu honetan, ikus-entzunezko baliabideen kontsumoaren arrisku-faktoreak murrizten dira. Izan ere, haurren garapenera eta behar psikologikoetara egokitutako erabilera familia testuinguruan bermatzea ezinbestekoa da. Rojas-en (2008) hitzetan, haurren eta helbuen garapen neurologiko eta emozionala ezberdina da. Garunaren heldutasuna 18-20 urte

bitarte gertatzen da eta, hortaz, kognizioa, jokabidearen kontrola, hausnarketa, judizioa… beste garuneko goi-mailako funtzioekin batera, ez daude garaturik. Adibide gisa, alegia, 5 urteko haurrak telebistako irudiak egiazkotzat eta benetazkotzat hartzen dituzte. 10 urtetik beherako haurrek, halaber, arrazoinamendu kritiko eta erlazionala mugatua dute. Hori guztiagatik, aisialdira bideratzen den ikus-entzunezko baliabide eta produktuen erabilera gidatua, neurtua eta mugatua izan behar da.

Eskolan, berriz, IKT-en erabilera didaktikoa nabarmentzen da. Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumak, 2014ko 174. NAO, irailaren 5koa, Natur Zientzian, Matematikan eta Euskal Hizkuntza eta Literaturan IKT-en erabilera arautzen du. Halaber, irakasgai guztietan eduki, material eta, oro har, baliabide gisa erabiltzen dira IKT-ak. Hortaz, irakasleek horien kontsumo egokia ezagutu eta ikasleei ikus-entzunezko baliabideen erabileran hezitu behar du. Hau da, baliabide osagarri ez ezik, ikus-entzunezko baliabideen erabileran trebetasuna eskuratu behar dute ikasleek. Horretarako, ordea, eskolen beharrak identifikatu behar dira, zeintzuk diren eskolaren indarguneak eta ahulguneak, hain zuzen ere.

### 2.4.2. IKTen presentzia gaur egungo Hezkuntza-Sisteman

Azken hamarkadetan eskolek digitalizazio prozesu bat jasan dute. Izan ere, kontsumo edo ezagutzaren gizartean IKT-en hedapenak eragin nabarmena izan du eskoletan (Hernandez, 2017). Hala ere, horien erabilerak eskoletan ez du zertan erabilera didaktiko eta pedagogiko eraginkorra ematen zaizkienik. Hau da, garai bateko koadernoaren ordezko gisa aurkeztu da eskoletan, Chromebook[14] erabilera Lehen Hezkuntza ohikoa izanik. Honen harira, Nafarroako Hezkuntza Departamenduak eskaintzen dituen IKT-en zerbitzuen baitan, Chromebook-ak Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako bideratzen ditu (Hezkuntza Departamentua, sf). Beraz, IKT-en presentzia, bai irakasleen, bai ikasleen erabileran, kontuan izatekoa da. Kasu honetan, ordea, ikasleek Google enpresa pribatuaren bidez izaten dute lehenengo kontaktua. Horregatik, ezinbestekoa da IKT-en erabilera neutrala sustatzea. Hau da, enpresa pribatuen interesetik kanpo, kalitatezko Hezkuntza erdigunean jartzen duen proiektua. Beste aldetik, teknologia berriak geletan zentzu pedagogiko eta didaktikoan txertatzea ezinbestekoa da ere. Hortaz, Diez-Barrigaren (2013) ustez, bi dira kontuan izateko elementuak:

- ➔ Ikasleek informaziora eskuratzeko estrategia propioak izatea edo bereganatzea. Hau da, internetetik eraginkorki nabigatzeko gaitasuna.
- ➔ Ikasleek informazioa eskuratzeko estrategiak zeregin zehatz batekin lotzea. Irakasleek IKT-ak informazioa lortzeko aukera berriak aprobetxatzeko gaitasuna izan behar dute.

[14] Chromebook-ak ordenagailu mota berri bat dira, zereginak errazago eta azkarrago egiten laguntzeko diseinatua. Chrome OS erabiltzen dute: hodeian biltegiratuta dagoen sistema-eragilea eta hainbat segurtasun-maila dituena (Google Support, 2022). Google-ek lan ofimatikoetara bideratzen dituen ordenagailuak dira, Hezkuntza Departamenduak erabilera didaktikoa ematen diona.

> Hortaz, irakasleek problema baten ebazpena, proiektu baten sorrera edo dena delakoa planteatu dezakete proposamen didaktiko gisa, ikasleen lan kooperatiboko estrategia bermatuz.

Beraz, bi dira gainditu beharreko erronkak edo bete beharreko baldintzak: irakasleek IKT-en kontsumoan eduki beharreko formakuntza, erabilera didaktikoa egin dezaten. Eta, bestetik, ikasleek IKT-ak kudeatzeko estrategia propioak eskuratzea, IKT-i erabilera egokia eman diezaioten. Izan ere, horien erabilera desegokiak psikopatologia ezberdinak garatzeko arrisku-faktorea da. Hortaz, eskolaren eta familiaren elkarlana indartu behar da, bi eragile horietan ematen baita IKT-en erabilera; batean didaktikoa eta bestean ludikoa, hurrenez hurren.

#### 2.4.3. IKTen kontsumoa: babes- edo arrisku-faktorea?

IKT-ak, per se, ez dira babes- edo arrisku-faktoreak, baliabide eta produktu multzoak dira, ikus-entzunezkoak tartean. Familia eta eskola testuinguruan egiten den kontsumoa, ordea, bai bada. Izan ere, eragile horietan IKT-ekin egiten den kontaktua enpresa pribatuen bidez egiten da orokorrean: Microsoft-eko Windows edo Google-eko Chromebook-ak. Hortaz, Hezkuntza arloan ikasleen beharrak erdigunean jartzen dituzten proiektu pedagogiko eta didaktikoak sustatu behar dira. Euskal Herriaren kasuan, Bilboko Harrobia Ikastolak software librean oinarritutako Hezkuntza proiektua, TxikiLinux sistema eragilearekin (ELKARTENET Hezkuntza Elkartea, s.f.). Modu honetan, alegia, IKT-en erabilera babes-faktorea bilakatzen da. Izan ere, gradu bukaerako lan honetan kontsumo ohituren eta psikopatologien arteko erlazioa identifikatu da. Hortaz, haurtzaroan IKT-en erabilera desegokia egiten bada, patologia eta psikopatologiak garatzeko arriskuak handitzen dira. Beraz, eskolaren eta familiare elkarlana, komunikazioa eta kooperazioa ezinbestekoa da problematika hori gainditzeko. Beraz, eskolek Prebentzio protokolo bat izatea familia testuinguruan IKT-en erabilera egokia bermatzeko eta, bestetik, hauen erabilera didaktikoan murgiltzeko baliabideak izatea, eskola babes-faktorea bilakatzen du.

#### 2.4.4. Kontsumo ohituren didaktika: Nola kudeatu IKT-en kontsumoa.

IKT-en kontsumoa kudeatzeko, lehenik haien erabileraren analisia egin behar da. Lan honen kasuan, alegia, familiek egiten duten erabileraren babes- eta arrisku-faktoreak identifikatu dira, baita ikus-entzunezko baliabideen kontsumo ez gidatuak patologien eta psikopatologien garapenarekin duen erlazioa ere. Hortaz, eskolaren kasuan, IKT-i erabilera didaktikoa emateko bete behar diren

baldintzak aipatu dira, baita Euskal Herrian eskuragarri dauden baliabide batzuk ere. Horiek horrela, gradu bukaerako lan honek AMIA[15] azterketa egingo du horien erabilera eskoletan zein den argitzeko.

[15] AMIA enpresa, erakunde, proiektu edo pertsona baten egoera aztertzeko erreminta da. Matrize karratu (taula) batean datuak biltzen dira eta bi motatakoak izaten dira: barne-ezaugarriak (ahulguneak eta indarguneak) eta kanpo-ezaugarriak (mehatxuak eta aukerak).

# 3. AMIA: IKTei eskola ezberdinetan ematen zaien erabilera. Ikus-entzunezko baliabideen kontsumo gisa

AMIA enpresa, erakunde, proiektu edo pertsona baten egoera aztertzeko erreminta da. Matrize karratu (taula) batean datuak biltzen dira eta bi motatakoak izaten dira: barne-ezaugarriak (ahulguneak eta indarguneak) eta kanpo-ezaugarriak (mehatxuak eta aukerak). Hortaz, gradu bukaerako lan honetan Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek IKTei eskola ezberdinetan ematen dieten erabilera aztertzeko erabili da. Datu bilketa aurrera eramateko, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle ezberdinei galdetegi bat pasa zaie batetik, eta bestetik, Lehen Hezkuntzako curriculumak arautzen dituen gaitasunak eta bideratutako baliabideak.

## 3.1. AMIA analisia:

**2. Taula.**

Eskolan AMIA analisia

| AMIA-DAFO ANALISIA | | | |
|---|---|---|---|
| **AHULGUNE** | **MEHATXUA** | **INDARGUNE** | **AUKERA** |
| • Eskolatik formakuntza jaso | • Formakuntza eskasa jaio | • Ikasleei bideratzen zaizkien | • Ikasleek IKT-ak erabiltzeko |

| AMIA-DAFO ANALISIA | | | |
|---|---|---|---|
| **AHULGUNE** | **MEHATXUA** | **INDARGUNE** | **AUKERA** |
| arren, eskasa izaten da, oinarrizko erabilerak bakarrik landuz.<br>● Lehen eta Haur Hezkuntzako graduetan jasotako IKT-en inguruko formakuntza eskasa da.<br>● Formakuntza ikastaroetan jaso izana, eskoletatik eta unibertsitatetik kanpo. Honek formakuntza deszentralizatua eta banakakoa indartzen du.<br>● IKT-ek eskaintzen dituzten baliabide didaktikoak ez probestea<br>● Hezkuntza Departamentutik bideratzen den formakuntza | izanak, IKT-en erabilera desegokia sustatu dezake. Bai irakasleen artean, bai ikasleen artean ere. Hortaz, baliabide didaktiko gisa ez lirateke probestuko. | formakuntzak: Internetaren erabilerak, testu eta irudi prozesatzaileak…etc.<br>● Oinarrizko programazioaren edukiak mailaka lantzea.<br>● IKT-en erabileraren ikasketa plan bat egitea eta mailaka edukiak lantzea.<br>● Informazioa bilatzea eta aurkezpenak egitea, azken zikloetan bereziki.<br>● Bigarren eta hirugarren zikloetan, eta eskolaren arabera, ikasle bakoitzak Chromebook bat edukitzea.<br>● Sare sozialen erabileraren inguruan tailerrak egitea. Hori bai, eskolaren arabera | gaitasuna azkar eskuratu dezakete.<br>● IKT-en erabilera ezberdinak eskoletan lantzen diren heinean, hauek hobetzeko eta indartzeko aukera dago.<br>● Irakasleek formakuntza jasotzeko prest aurkeztu dira, IKT-en erabilera didaktikoa ezagutzeko, hauen denbora-erabilera haurren adinaren arabera kudeatzeko, zeharkako-edukiak hobe eezagutzeko(interneta, ofikatika tresnak…etc) eta internetera haurrekin sartzeko irizpideak |

| AMIA-DAFO ANALISIA | | | |
|---|---|---|---|
| **AHULGUNE** | **MEHATXUA** | **INDARGUNE** | **AUKERA** |
| sistema eragile pribatuen oinarrisko erreminten oinarrizko erreminten erabilerara bideratuta dago, hala nola, google drive, google classroom edo microsoft office.<br>● Chromebook-en erabileran formakuntza jaso arren, enpresa pribatu batek bitartekari gisa egiten du. Hau da, Google-ek eskaintzen dituen baliabide pribatuen menpe egotea.<br>● Ez dira haurrei bideratzen zaien sistema eragile eta baliabide digitalak ezagutzen. Betiko IKT | | egiten da hau. Beraz, eskola batzuetan indargune bat da, beste batzuetan ez. | ezagutzeko. |

| AMIA-DAFO ANALISIA | | | |
|---|---|---|---|
| **AHULGUNE** | **MEHATXUA** | **INDARGUNE** | **AUKERA** |
| markak erabiltzen dira: Microsoft eta Windows, hain zuzen ere.<br>● Ez dira Hezkuntza Departamentutik irakasleentzat formakuntza sakonak bideratzen. Beste aldetik, ikasleei bideratutako programak edo tailerrak ez dira sistematikoki egiten ere, eskolaren arabera ikasleen eta irakasleen formakuntza alderatuz.<br>● Nafarroako Lehen Hezkuntzako curriculumak ez ditu IKT helburu didaktikoak lortzeko erreferentzia eta ekarpen | | | |

| AMIA-DAFO ANALISIA | | | |
|---|---|---|---|
| **AHULGUNE** | **MEHATXUA** | **INDARGUNE** | **AUKERA** |
| nahikorik. Ez da zeharkako eduki gisa lantzen. | | | |

3.2. Eskoletan erabiltzen diren IKT-ak

Eskoletan gehien erabiltzen diren IKT-ak ordenagailuak, portatilak eta tabletak dira. Hala ere, arbela digitalak eta mugikorrak erabiltzen dira ere.

**1. Irudia**

*Eskolan erabiltzen diren IKTak*




Chromebook-ak, ordea, portatilen barnean sartu daitezke. Beraz, portatilak dira gehien erabiltzen diren produktuak edo gailuak. Modu honetan, gradu bukaerako lan honen marko teorikoan aipatu diren ikus-entzunezko produktuekin bat datoz galdetegian aipatutako produktuak.

3.2. Zertarako erabiltzen dira IKT-ak

Eskoletan IKTei ematen zaien erabilera anitza da. Izan ere, hauen erabilera kudeatzen duen organo edo instituzio zentralizatu bat ez dagoenez, eskola bakoitzak hauen erabilera kudeatzen du. Hortaz, irakasleek eta ikasleek jasotako formakuntza ezberdina da eskolaren arabera.

**2. Irudia**.

*Zertarako erabiltzen dira IKTak*




Hala eta guztiz ere, IKT-ak klaseak ematen diren jardueren osagarri gisa erabiltzen dira gehien bat. Bestetik, matematika, informatika edo bestelako saioak emateko erabiltzen dira ere. Arbela digitala, adibidez, baliabide osagarria edo klaseak zuzenean emateko baliabidea izan daiteke. Esanguratsua da, alabaina, proiektu didaktikoak egiteko edo informazioa bilatzeko ez direla ia erabiltzen. Esan bezala, ez dago IKT-en kudeaketarako irizpide zentralizatu eta orokorrik. Beraz, eskolaren arabera hauen erabilera aldatzen da. Hau adierazgarria da, kontuan hartuta galdetegiari erantzun dioten gehienek eskola publikokoak direla:

**3. Irudia**

*Eskola motak*




3.3. IKT-ak erabiltzeko irakasleek jasotako formakuntza

Irakasleek IKTei inguruan jasotako formakuntza eskasa da orokorrean. Izan ere, eskolatik bideratzen diren formakuntza saioak gutxi dira eta, oro har, IKT-en oinarrizko erreminten erabilerari bideratuta daude: Google Drive, word edo dena delakoa. Hortaz, hauen erabilera didaktikoaz eta hauen ahalmen pedagogikoaz ez da informaziorik jasotzen. Beste aldetik, hauen erabileraren inguruko jaso diren formakuntza gehienak eskolatik kanpokoak dira, ikastaroetan. Esanguratsua da, ordea, inolako formakuntzarik jaso ez duten irakasleek:

**4. Irudia**

*IKTak erabiltzeko formakuntza*




3.4. IKT-ak erabiltzeko ikasleek jasotako formakuntza

Ikasleen jasotako prestakuntza, irakasleekin gertatzen den bezala, ezberdina da eskolaren arabera. Izan ere, ez dago eskoletan aplikatzen den prestakuntza sistematikorik. Beraz, eskolaren arabera zikloka edo mailaka egokitzen dituzte edukiak. Beste aldetik, badira tailer osagarriak egiten dituzten eskolak eta herriko udalak, non mekanografia edo sare sozialen erabilera landu den:

**5. Irudia**

*IKTak erabiltzeko tailerrak*




Hala ere, kasu gehienetan ez da inolako tailerrik eskaintzen. Beraz, ikasleei IKT-en inguruko oinarrizko prestakuntza bideratu arren, ez da batere homogeneoa izaten.

3.5. AMIA analisitik ateratako emaitzak

Atal honetan AMIA analisitik lortu diren emaitzen eztabaida egingo da. Berez, eskolan IKTei ematen zaien erabilera nolakoa den azalduko da. Orokorrean, klaseak emateko eta jarduera ezberdinen osagarri gisa erabiltzen dira. Honek, alabaina, baliabide digitalen aukerak ez direla probesten esan nahi du. Izan ere, hauen zeharkako erabilera beharmatu behar da, proiektu eta helburu didaktikoak betetzeko baliabide gisa. Hala ere, ez da formakuntza nahikorik jasotzen horrelako erabilera egiteko. Hori guztiagatik, azterketa honetatik bi dira atera daitezkeen gako nagustiak:

- ➔ IKTen erabilera desegokia egiten da, ez baita zeharkako eduki gisa erabiltzen.
- ➔ Irakasleen formakuntza eskasa.

# 4. Protokolo baten proposamena

Gradu bukaerako lan honek ikus-entzunezko baliabideen eta patologia ezberdinen erlazio bat identifikatzen du. Hortaz, eskolan prebentzio protokolo bat sortzea beharrezkoa ikusi da. Alde batetik, familiekin batera baliabide horien erabilera arduratsua eta gidatua sustatzeko. Bestetik, eskoletan ikus-entzunezko baliabideen kontsumoaren babes- eta arrisku-faktoreak identifikatzeko erremintak izatea, IKT-en erabilera hezitzaileak ez ezik, hauen erabilera egokia eta gidatua ezagutzea eta haurren garapen ebolutibora egokitutako erabilera sustatzea. Modu honetan, eskolan IKTen kontsumo didaktikoa bermatu eta familiaren kontsumoarekin koherentea eta osagarria da.

Hau guztiagatik, familien eta eskolen erlazioan sakondu eta bi eragileen koordinazioa eta komunikazioa bermatu behar da. Hortaz, honako proposamenak prebentzio protokolo bat garatzeko oinarrizko urratsak zehazten du, gradu bukaerako lanaren marko teorikoan oinarriturik batetik, eta pebentziorako irakasle-gida da.

**6. Irudia**

IKTak sortzen duten beharrei erantzuteko protokolo digitala



**2. Taula**

Protokoloaren esteka

| |
|---|
| Protokoloaren esteka: https://sites.google.com/view/iktprotokoloa/inicio |

## 4.1. Datu bilketa eta aurre-ebaluazioa

Protokolo honek ikasleen kontsumo-ohiturak identifikatzeko eta ikasleen behar psikologikoetara egokitutato esku-hartzea egiteko urratsak aipatzen ditu. Irakasleak bi galdetegi prestatuko ditu datuak jasotzeko. Alde batetik, irakasleek beteko dutena eta eskolan egiten den IKT-en erabilera biltzeko balioko duena. Beste aldetik, familiei bidaliko zaiena eta familia testuinguruan ikus-entzunezko baliabide eta produktuen kontsumoa neurtzeko balioko duena. Aurre-ebaluazioa izango dena, hain zuzen ere. Hau ezinbestekoa da eskolaren eta familiaren kontsumo-ohituren perspektiba orokorra izateko.

### 4.1.1. Eskolan IKTei ematen zaien erabilera. Eskolaren kontsumo-ohiturak ezagutzen.

Gero eta erabiliagoak diren IKT-ak eskolara iritsi dira ere. Eskolak digitalizazio prozesua bizi izan du azken urteotan. Hortaz, irakasleek IKT-en erabilera egokia egin behar dute, ez soilik baliabide horiek ahalik eta gehien probesteko, baita irakasleen irakaskuntza prozesua eta garapena ez oztopatzeko. Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumak IKT-en erabilera arautzen du.

**7. Irudia**

*Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculuma*

8. artikulua. Gaitasunak.

1. Ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak honako hauek dira:

1.–Hizkuntza komunikazioa.

2.–Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.

2.1.–Matematika gaitasuna.

2.2.–Zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.

3.–Gaitasun digitala.

4.–Ikasten ikastea.

5.–Gaitasun sozial eta zibikoak.

Beraz, irakasleek hauen erabileran formatu behar dira. Zehazki, gaitasun digitaletan eta teknologiako oinarrizko elementuetan. Hortaz, eskola kontsumo ohitura osasuntsuak sustatu behar duenez, babes-faktore gisa jokatu behar du. Hala ere, eskolan egiten den erabilera identifikatzeko aurre-ebaluazioa egingo da, galdetegi (I. Eranskina) formatu gisa:

**8. Irudia**

*Eskolan IKTei ematen zaien erabilera*




Hortaz, ikasleek gaitasun digitalak garatzeko irakasleen prestakuntza eta eskolen baliabideak bermatu behar dira. Prestakuntza horren lehenengo urratsak Protokolo honetan biltzen dira.

### 4.1.2. Familian IKTei ematen zaien erabilera. Familiaren kontsum-ohiturak ezagutzen

Eskolan gertatzen den bezala, IKTak familien kontsumo-ohituren parte bilakatu dira. Izan ere, aisialdiaren oinarrizko elementuak dira ikus-entzunezko baliabide eta produktuak. Hortaz, horien azterketa egingo da eskolaren kontsumo-ohiturekin osagarri egin daitezen. Horrela, alegia, haurren garapen ebolutiboari egokituta dagoen kontsumoa bermatu eta, eskolaren eta familiaren elkarlana indartuko da. Hori lor dadin, irakasleek, galdetegi (II. Eranskina) baten bitartez, familian IKTei ematen zaien erabilera aztertuko du.

**9. Irudia**

*Familian IKTei ematen zaien erabilera*




## 4.2. Datuen analisia: AMIA

Datu bilketa egin ondoren, **informazio** guzti hori **interpretatu** behar da. Horretarako, irakasleek AMIA analisia egingo dute.

AMIA enpresa, erakunde, instituzio, proiektu edo pertsona baten egoera aztertzeko erreminta da. Matrize karratu (taula) batean datuak biltzen dira eta bi motatakoak izaten dira: barne-ezaugarriak (ahulguneak eta indarguneak) eta kanpo-ezaugarriak (mehatxuak eta aukerak). Hortaz, eskolaren barne-ezaugarriak identifikatuko dira, hots, eskolaren babes- eta arrisku-faktoreak. Beste aldetik, familiaren ezaugarriak identifikatuko dira ere.

Hemen AMIA/DAFO analisiaren txantilioia dago eskuragarri:

**3. Taula**

AMIA analisia egiteko txantilioia

| **AMIA-DAFO ANALISIA** | | | |
|---|---|---|---|
| **AHULGUNE** | **MEHATXUAK** | **INDARGUNE** | **AUKERAK** |
| | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | |

AMIA taula osatzeko, alabaina, datu bilketan egin diren galdetegiaren emaitzak erabiliko dira.

## 4.3. Interbentzioa: IKT-en kontsumo-ohitura ludiko eta didaktikoen kudeaketa

Bi modutan kudeatuko da interbentzioa: alde batetik, familia testuinguruan kontsumo-ohitura osasuntsuak bermatzeko irizpideak ezarriko dira. Irizpide horiek, ordea, marko teorikoan egin den kontsumo ohituren eta psikopatologien arteko erlazioan oinarritu eta bigarren horiek gara ez daitezen arrisku-faktoreak ekiditzeko balioko dute. Beste aldetik, eskolan IKTen kontsumo eta erabilera didaktikoa egiteko eskuragarri dauden baliabide batzuk aipatuko dira, Hezkuntza arloan bermatu eta sustatu diren[16] enpresa pribatuen baliabide eta produktuen kanpo daudenak.

### 4.3.1. Familien IKTen kontsumoaren kudeaketa

Familia arloan IKT-en erabilera ludikoan denbora-muga bat jarriko da. Haurrak ezin dira denbora luzez ikus-entzunezko baliabideen eraginpean egon. Hortaz, gurasoek gidari gisa jokatu eta egiten den kontsumoaren neurketa egingo dute. Adinaren arabera ikus-entzunezko produktuen (tabletak eta segapotoak) zein baliabideen (telebista sailak, streaming plataformak edo interneta) kontsumo arduratsua bermatu. Hau da, erabilera-denboran mugak jartzea eta eduki egokiak aukeratzea. Honek ahalbidetuko du, alegia, eskolan eta familian egiten den IKT-en kontsumoa koherentea eta bateragarria izatea.

[16] Nafarroako Hezkuntza departamentuak, ordea, Google enpresa pribatuaren Chromebook-en erabilera arautu eta eskaintzen du.

**4. Taula.**

Kontsumo Irizpideak

| | |
|---|---|
| **DENBORA-MUGAK** | Familia bakoitzak IKTen erabirari denbora mugatu bat zehaztu behar dio. Hau da, denbora plan bat izatea (American Academy of Pediatrics, 2016). Hortaz, Lehen Hezkuntzan 6-12 urte bitarteko adinetan ordu batetik bi ordutara mugatzea gomendatzen da (Canadian Pediatric Society, 2016). Beraz, familia bakoitzaren kontsumo ohiturak aztertu ondoren, irakasleek horien erabilera mugatua egiteko gomendioa egingo du, 1-2 ordukoa izanik. |
| **EDUKIAK** | Irakasleak ikasleen kontsumo ohiturak aztertu ondoren (galdetegiaren bidez jasotzen dena), etxean ikusten diren ikus-entzunezko edukiak neurtzeko gomendioa emango du. Berez, telebista sailetan edo bestelako ikus-entzunezko baliabidetan kontsumitsen diren edukien azterketa eginez eta haurren adinera egokituta daudenak aukeratuz. |
| **PUBLIZITATEA** | Internetean kontsumitzen diren eduki asko publizitatez beterik daude. Hortaz, horien eragina negatiboa denez, ekidetzeko erremintak eskuratu behar dira. Protokolo honetan gurasoek eskura duten Ublock Origin* erreminta aurkeztuko du, doakoa eta webgune guztietan publizitatea kentzen duena. |

*Ublock Origin erremintaren instalazio prozesua:

Ublock Origin Interneteko erabiltzaileari instalatzen zaion luzapena da. Hau da, web-nabigatzaileari instalatzen zaion osagarri bat da, doakoa eta web-gune guztiei publizitatea kentzen diona.

➔ Instalazioa Google Chrome nabigatzailea:

## 5. Taula

Google Chrome-en instalazioa

<table>
<tr><td>1. URRATSA</td><td>
</td></tr>
<tr><td>2. URRATSA</td><td>
</td></tr>
<tr><td>3. URRATSA</td><td>
</td></tr>
</table>

➔ Instalazioa Firefox nabigatzailean:

**6. Taula**

Firefox-en instalazioa

| | |
|---|---|
| **1. URRATSA** |  |
| **2. URRATSA** |  |
| **3. URRATSA** |  |

### 4.3.1. Eskolen IKTen kontsumoaren kudeaketa

Eskolak IKT-en erabilera hezitzailea eta didaktikoa bermatzeko, Euskal Herrian sortu den Elkarnet erakundearen TxikiLinux ingurune digitala aurkeztuko da. TxikiLinux Software Librean[17] oinarritutako Hezkuntza proiektua da, eskola doako baliabide digitalez hornitzen diena. Modu honetan, enpresa pribatuen kanpo dagoen kontsumoa bermatzen da, haien interesetik kanpo dagoena eta Hezkuntza erdigunean jartzen duena, hots, kontsumo didaktikoa. Beste aldetik, gaur egun eskuragarri dauden software libreko Proiektu ezberdinak aurkeztuko dira ere. Hauen kasuan, Hezkuntza proiektuak izan ez arren, eskolen eskura dauden doako baliabide digitalak dira. Hortaz, helburu didaktikoak betetzeko baliagarriak diren IKTak dira, eskoletan erabil daitezkenak eta IKTen zeharkako erabilera (erabilera transversala, batik bat) ahalbidetzen duena.

➔ ELKARTENET Hezkuntza Elkartea

Elkartenet-eko web-gunean (Elkarnet, sf) eskuragarri dagoen informazioaren artean, horien proiektuen aurkezpena egiten dute. Hortaz, “KimuDigitala” proiektua hainbat ikastoletan probatzen ari dira, IKTak haur eta lehen hezkuntzan integratzeko proposamen pedagogikoa eta software librean oinarritutako aplikazioak erabiliz. Modu honetan, irakasleek tresna berriak erabiltzeko trebakuntza sustatu eta irakasleen etengabeko hobekuntza IKTak tresna gisa sartzeko ikaste-irakaste prozesuari ekarpena egin nahi dute. Hala ere ordenagailuen eta, oro har, eskolek IKTen erabilera zenbatekoa den lantzen da, beraien kokapena ikastetxeetan, irakasleek, ikasleek edo administrazioko langileek izan ahal dituzten sarbideak handituz. Hala eta guztiz ere, irakasleek normalean ez dute informazioaren teknologiak curriculumean integratzeko aholkurik eztaorientaziorik ere.

Hori guztiagatik, Euskal Herrian Elkarnet egiten ari den ekarpena bat egiten du gradu bukaerako lan honek dituen helburuarekin, hots, eskoletan kontsumo didaktikoa sustatzea. Honek, alegia, eskolak egin dezakeen IKTen erabilera babes-faktorea izatea ahalbidetzen du. Hortaz, IKTen erabilera desegokiak sor ditzakeen arazoak murriztuz, ikasleen behar pedagogikoak eta psikologikoak errespetatuz eta patologien garapena ekidituz. Beraz, Nafarroan horrelako proiektuak sustatzea ezinbestekoa da IKTen erabilerak sortzen dituen beharrak asetzeko. Hori lortzeko, doakoa den TxikiLinux sistema eragilea eskaintzen dute, helburu didaktikoak zeharka betetzeko:

[17] Software-a ordenagailu batek zereginak gauzatzeko programa, jarraibide eta arau informatikoen duen multzea da (RAE,2022). Software libre, berriz, kumunitatearen eta erabiltzailearen askatasuna bermatzen duen software-a da, erabaltzaileak exekutzatzeko, kopiatzeko, banatzeko, hobetzeko, aldatzeko eta aztertzeko eskubideak baititu (Boletín Free Software Supporter, 2021).

**7. Taula**

TxikiLinux

**TXIKILINUX**







Instalazioaren urratsak ELKARNET Hezkuntza Elkartearen web-gunean eskuragarri daude:

**8. Taula**

Elkartenet esteka

| | |
|---|---|
| **Elkartenet web-gunearen esteka** | https://www.elkartenet.eus/txikilinux-eus/ |

➔ Raspberry Pi Foundation:

Raspberry Pi Fundazioa (ingelesez: Raspberry Pi Foundation) mundu osoko pertsonen eskura konputazio eta digitalizazio ahalmena sortzeko helburuarekin sortu den erakundea da. Haien hitzetan (Raspberry Pi Foundation, sf), gero eta jende gehiago informatika eta teknologia digitalen erabileran gai izan behar dira. Horretarako, alegia, Software librean oinarritutako baliabidea anitzak eskaintzen dituzte. Hortaz, ikasleentzat baliagarriak diren formakuntzak eskuragarri daude.

➔ Zorin sistema eragilea:

Zorin sistema eragilea Windows, Google eta beste enpresa pribatuen sistema eragileen alternatiba gisa aurkezten dira, software librean oinarritzen. Hortaz, doanik erabili daitezken baliabideak eskaintzen ditu, baita Hezkuntza arlora bideratuta dagoen sistema eragilea:

**9. Taula**

Zorin Sistema Eragilea

| ZORIN-EK HEZKUNTZARA BIDERATZEN DUEN SISTEMA ERAGILEA |
| --- |
|   |

Esan bezala, IKT baliabide guzti hauek doakoak dira. Eta, irakasleen prestakuntza behar arren, horien erabilerak ikasleen garapen integrala bultzatzeko eta haien behar psikologikoak errespetatzen duen IKTen erabilera didaktikoa sustatzeko balio du.

### 4.3.2. Zergatik Hezkuntza Sistemak software librea erabili behar du?

Aurretik aipatu diren baliabideak edozein eskolan erabil daitezke. Izan ere, sistema eragilea bera eta bertan aurkitzen diren programa didaktikoak doakoak dira. Hortaz, Hezkuntza Sistemak IKTen zeharkako erabilera bermatzen du, software libreak eskaintzen dituen baliabide guztien banaketa eta erabilera eskola eta familia testuinguruetan egin daitekelako. Berez, Hezkuntza Departamentuak enpresa pribatuen baliabideak eta produktuak esleitzen dizkio eskolei. Hala ere, eskolatik kanpo ezin

dira erabili. Beraz, eskola eta familiaren kontsumoa koherentea eta osagarria egiteko, hots, kontsumo didaktikoa eta ludikoaren oreka mantentzeko, software libreak eskaintzen dituen doako baliabideak oso baliagarriak dira. Hori guztia Hezkutza arloan enpresa pribatuen baliabideak eta gailu elektronikoak erabili gabe. Berez, gradu bukaerako marko teorikoan aipatu den bezala, enpresa pribatuek haurren kontsumo ludiko eta didaktikoa bereganatzea arrisku-faktoreen adierazlea izan daiteke, haien esku jartzen baita haurren heziketa. Hortaz, eskolaren eta familien elkarlana ezinbestekoa da IKTen erabilera ludiko eta didaktiko egokia bermatzeko, horien erabilera ez gidatuak sor ditzakeen gabezia psikologikoak ekidituz.

Hori guztiagatik, Free Software Foundation-ek(2022) adierazten duen bezala, hauek dira Hezkuntza arloan software librea erabiltzearen gako nagusiak:

**10. Taula**

Hezkuntza arloan Software Librea

| |
|---|
| Partekatzea: Sistema eragilearen eta bertako programen doakotasunak, familia eta eskola testuinguruetan erabiltzea ahalbidetzen du. |
| Ardura soziala: Teknologia berriak bizitzaren oinarrizko baliabideak diren heinean, eskolek horien erabileran hezitu behar du. Hortaz, eskolan erabiltzen diren baliabide digitalak ezin dira enpresa pribatuen interesen menpe egon. |
| Independentzia: Ezin dira eskoletan enpresa pribatuen baliabide digitalak erabili, haien interes merkantilak haurren beharren gainetik jartzen direlako. Hortaz, software librea ez dago enpresen interes ekonomikoen menpe. Beraz, edozein momentutan haren baliabideak erabili eta eraldatu daitezke, haurren behar psikologikoetara egokituz.. |
| Aurrezkia: Hezkuntza Departamentuak eta eskolak software librean oinarritutako baliabideak erabiltzeko eta banatzeko ez du dirurik ordaindu behar. Edo, egitekotan, oso diru gutxi izango litzateke enpresa pribatuen zerbitzuekin konparatuz. |
| Kalitatea: Egonkorra, segurua eta erraz instalatzeko modukoa, software libreak hezkuntzarako irtenbide sorta zabala eskaintzen du, gradu bukaerako lan honen esku-hartze protokoloan ikusi den bezala. |

### 4.3.4. Protokoloaren euskarria: WEB (formatu digitala)

Atal honetan protokoloaren atal ezberdinak azalduko dira, aurreko puntuetan oinarriturik.

**10. Irudia**

*Protokoloaren azala*




Honako da Protokoloaren azal-orria. Bertan, alegia, eskuragarri dauden baliabide ezberdinak aurki ditzakegu: Zer dira IKTak? , Zer erabilera eman dakieke? , Babes- eta arrisku-faktore posibleak eta Eskolatik esku-hartzea.

**11. Irudia**

*IKTen definizioa*




Zer dira IKTak? atalean IKTen definizioa eta Lehen Hezkuntzako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculumak horien inguruan arautzen duena aurki daiteke. Baita curriculuma osoa ere.

**12. Irudia**

*IKTen erabilera ludikoa*



# Erabilera ludikoa

Familian ikus-entzunezko baliabide eta produktuei ematen zaien erabilera aisialdira bideratuta dago. Hortaz, IKT-ak haurren garapenean duten eragina dela eta, kontsumo ohitura osasuntsuak eta erabilera arduratsua bermatu behar da. Beste aisialdiekin egiten den bezala, IKT-en erabilera **neurtuta eta gidatua** izan behar da, bereziki haurtzaroko lehenengo etapetan. Haurrek IKT-etan **kontsumitzen dituzten edukiak haien adinetara egokituta** egon behar da behintzat, eta **denbora-erabilera mugatua**. Modu honetan, ikus-entzunezko baliabideen kontsumoaren arrisku-faktoreak murrizten dira.

## Etxean IKTen erabilera gidatua egiteko urratsak:

| | |
|---|---|
| **DENBORA-MUGAK** | Familia bakoitzak IKTen erabilerari denbora mugatu bat zehaztu behar dio. Hau da, denbora plan bat izatea (American Academy of Pediatrics, 2016). Hortaz, Lehen Hezkuntzan 6-12 urte bitarteko adinetan ordu batetik bi ordutara mugatzea gomendatzen da (Canadian Pediatric Society, 2016). Beraz, familia bakoitzaren kontsumo ohiturak aztertu ondoren, irakasleek horien erabilera mugatua egiteko gomendioa egingo du, 1-2 ordukoa izanik. |
| **EDUKIAK** | Irakasleak ikasleen kontsumo ohiturak aztertu ondoren (galdetegiaren bidez jasotzen dena), etxean ikusten diren ikus-entzunezko edukiak neurtzeko gomendioa emango du. Beraz, telebista saioetan edo bestelako ikus-entzunezko baliabideetan kontsumitzen diren edukien azterketa eginez eta haurren adinera egokituta daudenak aukeratuz. |
| **PUBLIZITATEA** | Internetean kontsumitzen diren eduki asko publizitatez beterik daude. Hortaz, horien eragina negatiboa denez, ekiditzeko erremintak eskuratu behar dira. Protokolo honetan gurasoek eskura duten Ublock Origin* erreminta aurkeztuko du, doakoa eta webgune guztietan publizitatea kentzen duena. |

## Publizitatea ekiditzeko urratsak: Ublock Origin.

Ublock Origin Interneteko erabiltzaileari instalatzen zaion luzapena da. Hau da, web-nabigatzaileari instalatzen zaion osagarri bat da, doakoa eta web-gune guztieì publizitatea kentzen diona. Hortaz, instalazioa bi nabigatzaile ezberdinetan, Chrome eta Firefox, hurrenez hurren, hemen duzue eskuragarri:

Google Chrome

Firefox

Familia arloan erabilera ludikoa egiteko irizpideak aipatzen dira: denbora-mugak jartzea, edukiak neurtzea eta publizitatea ekiditzea. Hortaz, publizitatea ekiditzeko urratsak aipatzen dira ere.

**13. Irudia**

*Interbentzio pedagogikoa*




Atal honetan eskolan erabili daitezken baliabide ezberdinak aurkitzen dira. Horien artean, alegia, Hezkutzara bideratuta dauden sistema eragileak.

**14. irudia**

*Zergatik Hezkuntza Sistemak software librea erabili*

## Zergatik Hezkuntza Sistemak software librea erabili behar du?

Aurretik aipatu diren baliabideak edozein eskolan erabil daitezke. Izan ere, sistema eragilea bera eta bertan aurkitzen diren programa didaktikoak doakoak dira. Hortaz, Hezkuntza Sistemak IKTen zeharkako erabilera bermatzen du, software libreak eskaintzen dituen baliabide guztien banaketa eta erabilera eskola eta familia testuinguruetan egin daitekelako. Berez, Hezkuntza Departamentuak enpresa pribatuen baliabideak eta produktuak esleitzen dizkio eskolei. Hala ere, eskolatik kanpo ezin dira erabili. Beraz, eskola eta familiaren kontsumoa koherentea eta osagarria egiteko, hots, kontsumo didaktikoa eta ludikoaren oreka mantentzeko, software libreak eskaintzen dituen doako baliabideak oso baliagarriak dira. Hori guztia Hezkutza arloan enpresa pribatuen baliabideak eta gailu elektronikoak erabili gabe. Berez, gradu bukaerako marko teorikoan aipatu den bezala, enpresa pribatuek haurren kontsumo ludiko eta didaktikoa bereganatzea arrisku-faktoreen adierazlea izan daiteke, haien esku jartzen baita haurren heziketa. Hortaz, eskolaren eta familien elkarlana ezinbestekoa da IKTen erabilera ludiko eta didaktiko egokia bermatzeko, horien erabilera ez gidatuak sor ditzakeen gabezia psikologikoak ekiditiz.

Hori guztiagatik, Free Software Foundation-ek(2022) adierazten duen bezala, hauek dira Hezkuntza arloan software librea erabiltzearen gako nagusiak:

- **Partekatzea:** Sistema eragilearen eta bertako programen doakotasunak, familia eta eskola testuinguruetan erabiltzea ahalbidetzen du.
- **Ardura soziala:** Teknologia berriak bizitzaren oinarrizko baliabideak diren heinean, eskolek horien erabileran hezitu behar du. Hortaz, eskolan erabiltzen diren baliabide digitalak ezin dira enpresa pribatuen interesen menpe egon.
- **Independentzia:** Ezin dira eskoletan enpresa pribatuen baliabide digitalak erabili, haien interes merkantilak haurren beharren gainetik jartzen direlako. Hortaz, software librea ez dago enpresen interes ekonomikoen menpe. Beraz, edozein momentutan haren baliabideak erabili eta eraldatu daitezke, haurren behar psikologikoetara egokituz..
- **Aurrezkia:** Hezkuntza Departamentuak eta eskolak software librean oinarritutako baliabideak erabiltzeko eta banatzeko ez du dirurik ordaindu behar. Edo, egitekotan, oso diru gutxi izango litzateke enpresa pribatuen zerbitzuekin konparatuz.
- **Kalitatea:** Egonkorra, segurua eta erraz instalatzeko modukoa, software libreak hezkuntzarako irtenbide sorta zabala eskaintzen du, gradu bukaerako lan honen esku-hartze protokoloan ikusi den bezala.

Gradu bukaerako lan honek, IKTen kontsumo didaktikoa egin dadin, proposatzen duen software librearen erabileraren justifikazioa da hau.

## 5. Proposamenak zein eragin pedagogiko, psikologiko eta sozialak du eskola eremuan: Praktikarekin duen lotura.

AMIA edozein eskolan egin daitekeen analisia da eta, hortaz, irakasleak erabil dezaketen erreminta. Modu honetan, familia eta eskola testuinguruetan egin daitekeen IKTen kontsumoa aztertu eta sortzen dituzten behar psikologiko eta fisikoei erantzuteko baliabideak eskaintzea da lan honen xedea. Hortaz, gradu bukaerako lan hau azterketa teorikoa izan arren, gaur egun teknologia berriak sortzen dituzten problematikei erantzuteko oinarrizko urratsak mahi-gainean jartzen ditu. Hori lortzeko, marko teorikoak IKTen kontsumoaren eta patologia mental eta fisikoen agerpenaren arteko erlazioa identifikatu du eta, hortik abiatuta, horien erabilera didaktikorako baliabide ezberdinak aurkeztu dira, IKTen zeharkako erabilera egiteko balioko dutenak. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculumak (2014) arautzen duen gaitasun digitalen bermeak IKTen zeharkako erabilera eskatzen du, eskolan eskatzen den didaktikari erantzunez. Hala ere, gradu bukaerako lan honek egin duen AMIA analisiak, Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako irakasleei bidali zaien galdetegiaren erantzunetan oinarrituta, IKTen erabilera didaktikoan formakuntza eskasa jasotzen dela azaleratu du. Era berean, ematen zaien erabilera ez du proiektu didaktikoak hornitzen, ez baitago formakuntza nahikorik, ez baliabiderik ere, ikasleen behar psikologikoak erdigunean jartzen duen IKTen kontsumoa eskolan egiteko. Beraz, lan hau baliagarria izan dadila premia horiei erantzuten duen eskola lortzeko, non Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiek haurren garapen ebolutibori erabat baliagarri izan dadin. Horretarako, alegia, esku-hartze protokolo bat sortu da, web-gune gisa, eskoletan erabil daitekena. Hortaz, irakaslegoaren formakuntza osatzeko balioko duen ekarpen pedagogikoa izan da gradu bukaerako lan honetan egin den proposamena.

## CONCLUSIONES / ONDORIOAK

El objetivo de este trabajo ha sido identificar la relación existente entre el consumo de las Tecnologías de la Información y Comunicación y el desarrollo de patologías mentales y físicas en la infancia. De hecho, el marco teórico ha identificado esa relación y, a partir de ahí, se ha propuesto una hoja de ruta para las escuelas y las familias. En concreto, se han establecido unos criterios de consumo didáctico y lúdico en la escuela y familia, respectivamente. Para establecer esos criterios, sin embargo, han sido utilizadas diferentes herramientas: trabajos de investigación citados en el marco teórico, análisis DAFO y dos cuestionarios, uno dirigido al personal docente de diferentes colegios y

otro para las familias. Así, a partir de los resultados obtenidos en sendos cuestionarios se ha procedido a hacer el análisis AMIA sobre el uso que se le dan a las TIC, para poder establecer las fortalezas, debilidades, amenazas y oportunidades en la escuela. A partir de ahí se puede concluir que no existe un uso transversal de las TIC en la escuela. Es decir, en vez de ser utilizadas para la creación de proyectos o problemas didácticos, o como medio para conseguir los objetivos didácticos establecidos, se utilizan como complemento. Este complemento puede ser una pizarra digital, ordenador o sea cual sea. Por tanto, si bien la escuela ha pasado por un proceso de digitalización, de formato papel a formato digital, no es capaz de aprovechar el potencial didáctico de las TIC. Por otro lado, y como causa de los anteriormente mencionado, no existe todavía una formación sistemática en el uso de las TIC, lo que provoca un uso inadecuado en el entorno escolar. Así pues, se ve necesario la creación de medios para un uso transversal de las TIC en la escuela.

Por último, mencionar que los TIC proporcionados a la escuela son de empresas privadas. De hecho, es el Departamento de Educación de Navarra el encargado de ofrecer diferentes recursos provenientes de empresas privadas como Google o Microsoft. Por tanto, se ve necesario la utilización de tecnologías que no provengan de entornos mercantiles, como pueden ser las iniciativas de software libre. Entre ellas, el proyecto educativo TxikiLinux, que puede ser utilizado de manera gratuita y totalmente en euskera. Así pues, aunque este trabajo de fin de grado sea un estudio teórico, ofrece una serie de herramientas en forma de protocolo digital y que pueden ser utilizadas por los maestros y maestras; con el fin de fomentar el consumo didáctico de las TIC en las escuelas y poder integrarlas satisfactoriamente en la programación didáctica.

# BIBLIOGRAFIA


Adana Fundació. (s.f.). TDHA Definición y Tipo. https://www.fundacionadana.org/definicion-tdah/

Andrés, M. L., Canet Juric, L., Castañeiras, C. E., & Richaud de Minzi, M. C. (2016). Relaciones de la regulación emocional y la personalidad con la ansiedad y depresión en niños. *Avances en Psicología Latinoamericana*, *34*(1), 99-115.

Ángel, D. B. (2013). TIC en el trabajo del aula. Impacto en la planeación didáctica. *Revista iberoamericana de educación superior*, *4*(10), 3-21.

Ballús, C. (1983). Psicobiología: Interrelación de aspectos experimentales y clínicos. Barcelona: Herder.

Belloch, A., y Olabarría, B. (1993). El modelo bio-psicosocial: Un marco de referencia necesario para el psicólogo clínico. Clínicay Salud, 4, 181-190.

Belloch, A., Sandín, B., Ramos, F. (2008). Manual de Psicopatología. Volumen I (2da ed., pp. ix-x). Mc Graw Hill.

Berger, P., & Luckmann, T. (2003). I. LOS FUNDAMENTOS DEL CONOCIMIENTO EN LA VIDA COTIDIANA II. LA SOCIEDAD COMO REALIDAD OBJETIVA. *La construcción social de la realidad, Buenos Aires, Amorrortu*.

Boletín Free Software Supporter. (2021). ¿Qué es el Software Libre?. Recuperado en https://www.gnu.org/philosophy/free-sw.es.html

Bringué, X., & Sádaba-Chalezquer, C. (2010). Niños y adolescentes españoles ante las pantallas: rasgos configuradores de una generación interactiva.

Bruñol, M. C. (1997). Infancia, autonomía y derechos: una cuestión de principios. *Infancia: Boletín del Instituto Interamericano del Niño—OEA*, *234*, 1-13.

Bochaca, J. G. (2015). La comunicación familia-escuela en educación infantil y primaria. *Revista de Sociología de la Educación-RASE*, *8*(1), 71-85.

Bolívar Botía, A. (2006). Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista de educación*.

Carosio, A. (2008). El género del consumo en la sociedad de consumo. *La ventana. Revista de estudios de género*, *3*(27), 130-169.

Carrasco Rosa, A. (2007). La sociedad de consumo: origen y características.

Castells, M. (2004). La era de la información: economía, sociedad y cultura.

Castell, M. (2000). Globalización, sociedad y política en la era de la información. *Bitácora urbano-territorial*, *4*(1), 42-53.

Castro, A. B. (2009). Familia y escuela los pilares de la educación. *Revista Innovación y experiencias educativas*, *14*, 1-11.

Clínica Universidad de Navarra. Trastorno por déficit de atención e hiperactividad (TDAH). https://www.cun.es/enfermedades-tratamientos/enfermedades/tdah

Cid Rodríguez, M. D. C., Montes de Oca Ramos, R., & Hernandez Díaz, O. (2014). La familia en el cuidado de la salud. *Revista Médica Electrónica*, *36*(4), 462-472.

Constitución española (BOE núm.311, de 29 de diciembre de 1978).

COUNCIL ON COMMUNICATIONS AND MEDIA (2016). Media and Young Minds. *Pediatrics*, *138*(5), e20162591. https://doi.org/10.1542/peds.2016-2591

Craig, G. J. (2009). Desarrollo psicológico.

Curtis, D. A. (2012). Mass media influence on society. *Retrieved*, *4*(02), 2015.

ELKARTENET. (s.f.). Hezkuntza Elkartea. *Nortzuk gara?* Recuperado en https://www.elkartenet.eus/nortzuk-gara/

Euskaltzaindia. Real Academia de la lengua vasca. Recuperado el 13 de mayo en https://www.euskaltzaindia.eus/es/?sarrera=kapitalismoa&antzekoak=ez&option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=es-ES&bila=bai

Fundación CADAH. (2017). Qué factores NO causan el TDAH. https://www.fundacioncadah.org/web/articulo/que-factores-no-causan-el-tdah.html

García, F. M. (2009). Impacto de las pantallas, televisión, ordenador y videojuegos. *Pediatría integral*, *881*, 697-706.

Google Support. (2022). Cambiar de un PC o un ordenador MAC. *¿En qué se diferencian los Chromebook de otros ordenadores, como los que usan Windows o MAC OS?*. Recuperado en https://support.google.com/chromebook/answer/3265094?hl=es#zippy=%2Cen-qu%C3%A9-se-diferencian-los-chromebooks-de-otros-ordenadores-como-los-que-usan-windows-o-mac-os

Hernandez, R. M. (2017). Impacto de las TIC en la educación: Retos y Perspectivas. *Propósitos y representaciones*, *5*(1), 325-347.

Herrera Santi, P. (1999). Principales factores de riesgo psicológicos y sociales en el adolescente. *Revista cubana de Pediatría*, *71*(1), 39-42.

Hezkuntza Departamentua. (s.f). Zer da SKOLAE. Recuperado en https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/skolae-familias

Hezkuntza Departamentua. (sf). IKT zerbitzuak. *Chromebook.* Recuperado en https://www.educacion.navarra.es/web/serviciostic

Horwitz Campos, N., Florenzano Urzúa, R., & Ringeling Polanco, I. (1985). Familia y salud familiar. Un enfoque para la atención primaria. *Boletín de la Oficina Sanitaria Panamericana (OSP); 98 (2), feb. 1985*.

Lavado, J. M. D. (2002). La educación en la antigua Grecia. In *Actas de las III jornadas de Humanidades Clásicas* (pp. 93-114). Junta de Extremadura.

Louro Bernal, I. (2003). La familia en la determinación de la salud. *Revista cubana de salud pública*, *29*(1), 48-51.

Mantilla, M. M. C. (2017). Adicciones tecnológicas:¿ Enfermedad o conducta adaptativa?. *Medisur*, *15*(2), 251-260.

Martínez, S. D. (2010). La Educación, cosa de dos: La escuela y la familia. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, *1*(8), 1-15.

McQuail, D. (1977). The influence and effects of mass media. *Mass communication and society*, 70-94.

Moreno, C., Ramos, P., Rivera, F., Sánchez-Queija, I., Jiménez-Iglesias, A., García-Moya, I., ... & Leal-López, E. (2018). La adolescencia en España: salud, bienestar, familia, vida académica y social. *Resultados del estudio HBSC*.

Muñoz Silva, A. (2005). La familia como contexto de desarrollo infantil: dimensiones de análisis relevantes para la intervención educativa y social.

Nafarroa, Nafarroako Gobernua. (2019). Dekreto forala 3/2019, urtarrilaren 16koa.

Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako curriculuma (2014ko Irailaren 5a).

Spitulnik, D. (1993). Anthropology and mass media. *Annual review of Anthropology*, *22*(1), 293-315.

O'Keeffe, G. S., & Clarke-Pearson, K. (2011). The impact of social media on children, adolescents, and families. *Pediatrics*, *127*(4), 800-804.

Organización Mundial de la Salud. (2013). Atención en salud mental en los países en desarrollo: análisis crítico de los resultados de las investigaciones. Hemen kontsultatua http://www.who.int/features/factfiles/mental_health/es/

Organización Mundial de la Salud. (2019). Trastornos Mentales. Hemen kontsultatua https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/mental-disorders

Quitian, R. A. V., & Ariza, C. G. (2015). Los factores psicosociales y su relación con las enfermedades mentales. *Gestión de las Personas y Tecnología*, *8*(24), 30-37.

Rodríguez Díaz, S. (2012). Consumismo y Sociedad: una visión crítica del Homo Consumens.

Rodulfo, J. I. A. (2019). Sedentarismo, la enfermedad del siglo xxi. *Clínica e Investigación en Arteriosclerosis*, *31*(5), 233-240.

PALACIOS, J. y RODRIGO, M. J. (1998): La familia como contexto de desarrollo humano. En M. J. Rodrigo y J. Palacios (Coords.), Familia y desarrollo humano (25-44) Madrid, Alianza

Pecora, N. (1995). A half-century of childhood as market: Children and television advertising from a social science perspective.

PLUTARCO. (1974). *VIDAS PARALELAS* (1a. ed., 1a. reimp.). BARCELONA: VERGARA

Polaino-Lorente, A. (2009). Evaluación psicológica y psicopatológica de la familia.

Real Academia Española. *Diccionario de la lengua española*. Recuperado en 1 de febrero de 2022 en https://dle.rae.es/holismo.

Real Academia Española. *Diccionario de la lengua española*. Recuperado el 29 de marzo en https://dle.rae.es/escuela.

Real Academia Española. *Diccionario de la lengua española*. Recuperado en 12 de mayo de 2022 en https://dle.rae.es/software

Real Academia Española. *Diccionario de la lengua española*. Recuperado en 12 de mayo de 2022 en https://dle.rae.es/capitalismo?m=form

Real Academia Española. *Diccionario de la lengua española*. Recuperado en 13 de mayo de 2022 en https://dle.rae.es/etiolog%C3%ADa?m=form

Real Academia Nacional de Medicina de España. (2012). *Diccionario de términos médicos.* Hemen kontsultatua http://dtme.ranm.es/buscador.aspx

Real Academia Nacional de Medicina de España. (2012). *Diccionario de términos médicos.* Hemen kontsultatua https://dtme.ranm.es/buscador.aspx?NIVEL_BUS=3&LEMA_BUS=psicosocial

Real Academia Nacional de Medicina de España. (2012). *Diccionario de términos médicos.* Hemen kontsultatua https://dtme.ranm.es/buscador.aspx?NIVEL_BUS=3&LEMA_BUS=epidemiolog%C3%ADa

Real Academia Nacional de Medicina de España. (2012). *Diccionario de términos médicos.* Hemen kontsultatua https://dtme.ranm.es/buscador.aspx?NIVEL_BUS=3&LEMA_BUS=ansiedad

Real Academia Nacional de Medicina de España. (2012). *Diccionario de términos médicos.* Hemen kontsultatua https://dtme.ranm.es/buscador.aspx?NIVEL_BUS=3&LEMA_BUS=ansiedad

Rodríguez, A., & Torrente, G. (2003). Interacción familiar y conducta antisocial. *Boletín de psicología*, *78*, 7-19.

Rojas, V. (2008). Influencia de la televisión y videojuegos en el aprendizaje y conducta infanto-juvenil. *Revista chilena de pediatría*, *79*, 81-85.

Romaní, J. C. C. (2009). El concepto de tecnologías de la información. Benchmarking sobre las definiciones de las TIC en la sociedad del conocimiento. *Zer: Revista de estudios de comunicación= Komunikazio ikasketen aldizkaria*, *14*(27).

Sánchez, C. (2008). La familia: concepto, cambios y nuevos modelos. *Revista la Revue du REDIF*, *2*(1), 15.

Sánchez-Cruz, J. J., Jiménez-Moleón, J. J., Fernández-Quesada, F., & Sánchez, M. J. (2013). Prevalencia de obesidad infantil y juvenil en España en 2012. *Revista española de cardiología*, *66*(5), 371-376.

Salas, J. A. (2019). Historia general de la educación.

Schneider (1992). *Klinische Psychopathologie* (en alemán). Georg Thieme Verlag.

Sierra, J. C., Ortega, V., & Zubeidat, I. (2003). Ansiedad, angustia y estrés: tres conceptos a diferenciar. *Revista mal-estar e subjetividade*, *3*(1), 10-59.

Tayeh, P., Agámez, P., & Chaskel, R. (2016). Trastornos de ansiedad en la infancia y la adolescencia. *Precop SCP*, *15*(1), 6-18.

Tremblay, M. S., Carson, V., & Chaput, J. P. (2016). Introduction to the Canadian 24-Hour Movement Guidelines for Children and Youth: An Integration of Physical Activity, Sedentary Behaviour, and Sleep. *Applied physiology, nutrition, and metabolism = Physiologie appliquee, nutrition et metabolisme*, *41*(6 Suppl 3), iii–iv. https://doi.org/10.1139/apnm-2016-0203

Valdés, M., & De Flores, T. (1985). Psicobiología del estrés. *Barcelona: Martínez Roca*, *2*.

Yubero, S. (2005). Capítulo XXIV: Socialización y aprendizaje social. *Psicología social, cultura y educación, coord. por Darío Páez Rovira, Itziar Fernández Sedano, Silvia Ubillos Landa, Elena Zubieta*, 819-844.

# ERANSKINAK

## I. Irakasleei zuzendutako galdetegia:



### Eskolan IKTei ematen zaien erabilera

Galdetegi honen bitartez irakasleek eta ikasleek eskolan IKTei ematen dieten erabilera ezagutu nahi da. Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak egunerokotasunean erabiltzen dira. Horien artean, ikus-entzunezko baliabideak (Interneta eta You Tube, adibidez) eta produktuak (ordenagailuak, tabletak edo telebistak, adibidez) aurki daitezke. Hortaz, eskola testuinguruan horien erabilera nolakoa den aztertu nahi da.

1. Zein eskola motatan egiten duzu lan?

*Marca solo un óvalo.*

- Eskola publikoan
- Eskola kontzertatuan
- Eskola pribatuan

2. Zenbat urte daramatzazu lanean?

*Marca solo un óvalo.*

- 1-3 urte
- 3-5 urte
- 5-10 urte
- 10-15 urte
- 15 urtetik gora

3. Zeintzuk dira eskolan erabiltzen diren IKT-ak?

*Selecciona todos los que correspondan.*

- [ ] Ordenagailuak
- [ ] Portatilak
- [ ] Tabletak
- [ ] Otro: ____________

4. IKT-ak zertarako erabiltzen dituzue?

*Selecciona todos los que correspondan.*

- [ ] Klaseak emateko (Informatika, matematika edo dena delakoa)
- [ ] Klasean egiten diren jardueren osagarri gisa
- [ ] Erabilera ludikoa: musika, dantzak edo dena delakoa
- [ ] Otro: ______________________

5. Zeintzuk dira eskolan erabiltzen dituzuen sistema eragileak?

*Selecciona todos los que correspondan.*

- [ ] Microsoft Windows
- [ ] Chrome OS (Google enpresa pribatuaren Chromebook-a)
- [ ] Ubuntu edo Linux-en oinarritutako beste sistema-eragilerik
- [ ] Otro: ______________________

6. IKT-ak erabiltzeko formakuntza jaso duzue?

*Selecciona todos los que correspondan.*

- [ ] Bai, unibertsitatean formakuntza jaso dut
- [ ] Bai, eskolan formakuntza jaso dut
- [ ] Bai, bestelako formakuntza jaso dut (ikastaroak, adibidez)
- [ ] Ez, ez dut formakuntza zuzenik jaso

7. IKT-en erabileran formakuntza jaso baduzue, azaldu labur-labur zertan oinarritu den

8. IKT-en erabileran formakuntza jaso ez baduzue, aukeratu zerrendan, egokiena iruditzen zaizuna:

*Selecciona todos los que correspondan.*

- [ ] IKT-en baliabide didaktikoak kudeatzen jakitea
- [ ] IKT-en baitan agertzen diren zeharkako edukiak (interneta, word, calc...edo dena delakoa) ikasleei erabiltzen irakastea
- [ ] Internet-en sartzeko irizpideak, non eta zein ezaugarri behar dituzten webguneek ikasleek erabili dezaten (publizitaterik gabekoak, adibidez)
- [ ] IKT-en denbora-erabilerak adinaren arabera egokitzen jakitea, haurren behar psikologikoetan oinarriturik
- [ ] Enpresa pribatutik kanpo dauden Hezkuntza Proiektuak ezagutzea
- [ ] Otro: ____________________

9. Ikasleentzako IKT-en erabilerari buruzko prestakuntza-plan bat dago eskolan?

*Marca solo un óvalo.*

- ( ) Bai, ikasleei IKT ezberdinen erabilerak irakasten zaizkie
- ( ) Ez, ikasleek ez dute IKT-en inguruko formakuntza edo prestakuntza zuzenik jasotzen

10. Ikasleen IKT-en erabileran formakuntza jaso badute, azaldu labur-labur zertan oinarritu den

________________________________________
________________________________________
________________________________________
________________________________________
________________________________________

11. Eskolak ikasleei IKT-en erabilera irakasteko tailerrik egin du?

*Marca solo un óvalo.*

- ( ) Bai
- ( ) Ez

12. Tailerren bat egin bada, zertan oinarritu da?

13. Haurrei bideratuta dagoen sistema eragileren bat ezagutzen duzu?

*Marca solo un óvalo.*

- Bai
- Ez

14. Haurrei bideratuta dagoen sistema eragileren bat ezagutuz gero, nola du izena?

15. Aurreko galdera erantzun baduzu, zein erabilera eman diozu sistema eragile horri?

*Selecciona todos los que correspondan.*

- [ ] Erabilera ludikoa: musika, bideoak edo bestelakoak
- [ ] Erabilera didaktikoa: jarduera didaktikoak, bideo interaktiboak, joku didaktikoak edo bestelakoak
- [ ] Ezagutu arren, ez dut eskolan erabili
- [ ] Otro: ______

16. Euskal Herrian sortu eta Hezkuntza proiektua den TxikiLinux sistema eragilea ezagutzen duzu?

*Marca solo un óvalo.*

- Bai
- Ez

17. TxikiLinux sistema ezagutu eta erabili baduzu, nolakoa izan da zure esperientzia?

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google.

Google Formularios

## II. Familiei zuzendutako galdetegia



# Familian IKTei ematen zaien erabilera

Galdetegi honen bitartez haurren etxean IKTei ematen dieten erabilera ezagutu nahi da. Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak egunerokotasunean erabiltzen dira. Horien artean, ikus-entzunezko baliabideak (Interneta eta You Tube, adibidez) eta produktuak (ordenagailuak, tabletak edo telebistak, adibidez) aurki daitezke. Hortaz, familia testuinguruan horien erabilera nolakoa den aztertu nahi da.

1. Zeintzuk dira etxean erabiltzen diren IKT-ak?

*Selecciona todos los que correspondan.*

- ☐ Ordenagailuak
- ☐ Portatilak
- ☐ Tabletak
- ☐ Mugikorrak edo segapotoak
- ☐ Bideokontsola
- ☐ Otro: ______________________

2. IKT-ak zertarako erabiltzen dira?

*Selecciona todos los que correspondan.*

- ☐ Aisialdirako erabiltzen ditugu: pelikulak, serieak edo dena delakoa
- ☐ Bideojokoetara jolasteko
- ☐ Internetetik nabigatzeko
- ☐ Eskolan bidaltzen diren jarduera didaktikoak egiteko
- ☐ Otro: ______________________

3. Ordenagailuan, tabletetan, mugikorretan edo bestelako produktuetan bideojokuetara jolasten baduzue, publizitatea dago bertan?

*Marca solo un óvalo.*

- ◯ Bai, promozioak edo bestelako publizitatea agertzen da
- ◯ Ez, publizitaterik gabeko bideojokoak dira

4. Internetetik nabigatzean publizitatea ekiditeko tresnak ezagutzen dituzue?

*Marca solo un óvalo.*

- ( ) Bai
- ( ) Ez

5. Zeintzuk dira etxean erabiltzen dituzuen sistema eragileak?

*Selecciona todos los que correspondan.*

- [ ] Microsoft Windows
- [ ] MAC OS (Apple enpresaren sistema eragilea
- [ ] Chrome OS (Google enpresa pribatuaren Chromebook-a)
- [ ] Ubuntu edo Linux-en oinarritutako beste sistema-eragilerik
- [ ] Otro: ______________________

6. IKT-ak erabiltzeko denbora-mugak jartzen dituzue?

*Selecciona todos los que correspondan.*

- [ ] Egunean ordu bat baino gutxiago
- [ ] Egunean ordu bat
- [ ] Egunean ordu bat edo bi bitartean
- [ ] Egunean bi ordu edo gehiego
- [ ] Ez, ez dugu denbora-mugarik jartzen

7. IKTetan kontsumitzen diren edukiak neurtzen dituzue?

*Selecciona todos los que correspondan.*

- [ ] Bai, telebistan, ordenagailuan edo bestelako produktuetan ikusten diren edukiak adinari egokituta daude
- [ ] Bai, jolasten diren bideojokoak adinari egokituta daude
- [ ] Internetan ikusten diren edukiak kontrolatzen dira
- [ ] Ez, haurrek edozer ikus dezakete

8. Haurrei bideratuta dagoen sistema eragileren bat ezagutzen duzu?

*Marca solo un óvalo.*

- Bai
- Ez

9. Haurrei bideratuta dagoen sistema eragileren bat ezagutuz gero, nola du izena?

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google.

Google Formularios